

Arrasate

P R E S S

2000.eko
martxoak 24
489. zenb.



Musika taldeak lokal beharrean

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: MIKEL OLABE
ORAIN ETA HEMEN: GAZTETXEA • KULTURA ELKARRIZKETA: JESUS L. ZULUETA

Uarkape pilotalekua



1. PARTIDA

Unanue - Arretxe

Tirapu - Armendariz

Eskuz Banakako Txapelketa

2. PARTIDA

Errasti - Patxi Ruiz

Eguna: Larunbata, 25

Ordua: 17:30

Txartelak salgai:

Larunbatean 12:00etatik 13:30ra arte
eta 16:00etatik aurrera.

Laguntzailea:



ARRASATEKO UDALA

Udaberria

Herri txikiko kaletarra naiz. Osea, ezebez. Ez baserritarra, eta ez hiritarra. Bapez.

Nire jaioterria, Ormaiztegi, industri giroko herria da. Zenbaitek ezagutuko duzue autobus fabrika, baina beste asko ere badago. Txikitan egiten nituen kalkulueta, mila eta berrehun biztanleko herrian lanpostuak zortziehun edo baziren. Baserri girorik, ordea, apenas. Eta hain herri txikian, hiri girorik ere ez. Beraz, bapez.

Aita enpresaria nuen, eta ama, beste sei anai-arrebekin konpartitzen dudana, etxekoandrea.

Aitona Zezilio arotza, eta aitona Julian, baserritarra. Baina honen baserria, Telleri Zahar, kalean zegoen eta gainera, ikasle denbora guztian, kanpoan ibili nintzen. Ezin bada, baserri girotik gauza handirik jaso. Eta, aldiz,



Mikel Irizar

Herri txikiko kaletarra naiz. Osea, ezebez. Ez baserritarra, ezta hiritarra.

hirira joanda, arlote.

Ze, hainbat tokitan bizi izatea tokatu zait, tartean Madrilen ere bai. Eta sufritu ez, baina hiriaren handitasunak neke modukoa sortzen zidan, eta edozein gauza egiteko joan-etorritan denbora asko eman beharrik, gogoia ahultzen. Hirirako arlotegegia, nonbait.

Geroago Bergaran eta ondoren Arrasaten pozik bizi izan naiz, hauen tamaina erosoagoa zen. Baina hala ere, une batetik aurrera Arrasate bera ere deseroso bihurtzen hasi zitzaidan, edozein ordutan autoak harantz eta honantz, aparkatzeko arazoak eta abar.

Orduantxe sortu zitzaidan baserriratzeko aukera. Eta baita aprobetxatu ere!

Baina, ez pentsa, hemen ere ez da dena erraza izan, baserrirako kaletarregia edo! Adibi-

dez, ikasi egin behar izan dut gau ilunena ere ez dela beltza, edo isiltasuna entzun egiten dela, inoiz gehiegi ere bai. Eta nire ezjakintasunaz ohartu ere ohartu naiz. Intxaurrendoa eta lizarra, edo zozo eta eskilarazoen kantuak bereizteko gai ez izateak ez nau poztu, egia esan.

Eta ortuko lantxoetan hasi naizenean konturatu naiz, aitona Julianekin inoiz letxugaren bat aldatu nueneko oroimen hura, agian asmatutakoa izan daitekela, nire fantasiak sortutako apaingarria. Ze landaretxo nimino hartatik ganorazko letxuga bat irtengo zenik, edo tomate landareari aleak egingo zitzaizkionik sinesteak lanak eman dizkit. Kaletar ez, baserritar ere ez. Bapez.

Kontua da, baserritartzen ari naizen bitartean, urtero udaberria iristen dela, eta aurten ere bai. Eta udaberria baserrian zoragarria egiten zaidala. Aurtengoan, Agirre gerizon-doa eta Morettini makatzondoa izan dira mugitzen lehenak. Eta ni, baserritar herria, hunkituta.

Hori, zuek ere goza udaberria! ■

“Kooperatibistak beste edozein langile bezain ‘alienatuta’ daude”

Sharryn Kasmir

2.930

boto zenbatu zituzten Arrasaten Kanpo Zorrenen aurka.

18 urtetik gorakoan 2.852 boto egon ziren herri kontsultan eta 16-17 urte bitarteko beste 71. Beste sei etorkinenak izan ziren eta boto nulo eta baimenik gabeko boto bana ere izan zen. Ez da erantzun txarra, hauteskunde egunetik kanpo egin izateko.

ITURRI ONETIK

Garraio publikoa bultzatzeko

Arrasaten ipini nahi den herri barruko autobusa, urbanoa dela eta, Fagorrek hamabost milioi emango zituela esan genizuen. Orain, Eroskik ere diruz lagunduko duela jakin dugu.

Autobusak orduero egingo du itzulia herrian eta 55 minutu beharko dituela kalkulatu da itzuli osoa egiteko. Horren arabera, ordua bete arteko denbora Eroskin egingo du, zain. Eta trukean, Udalak zazpi milioiko laguntza jasoko du.

Dena dela, hori oraindik lotzeko omen dago. Urterro laguntza bera emango den ere zehazteke dago. Baina esandakoa beteko balitz, zazpi milioi Eroskik eta hamabost hiru urtean Fagorrek, ez dago txarto.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otolora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Marijo Dieguez. Kazetariak: Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. Publizitatea: Nerea Zallo Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). Zuzentzailea: Arantzazu Loidi. Administrazioa: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). Diseinua: Maddi Trutxuelo. Asteburuetako berriemaketa: Monika Belastegi. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Karmele Perez, Iker Ezpeleta, Nekane San Migel. Banaketa arduraduna: Naiara Oñozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. Lege-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuarekin egiten da.

Azala: Ubane Madera.



Arrasateko Udaleraren laguntza.



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sallaren laguntza.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igoalatorioa 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
 Arrasate
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

IZADI ZAINKETAK ZALEKERIA ERAIKITZALEA SOBERAN DU

Motzean errateko, irakurle eta denok sosa ere gatibu dugularik, hitz bitan saiatuko natzaizue hausnarketa bat egiten. Errepideak, trenbide lasterrak, Elgea bezalako zentralak, itsusiak izateaz gain, trakets dute zentzua.

Errepide lasterrak kasu, zabalak, trailerrendako egoikiak; hots, komunikabide ona deritzate. Ondorioz, merkeago salduko dugu ekoizpena kanpoan, bai. Baina, noski, errepide beretik datozenek, kanpokoek merkeago ere salduko dute. Zertarako orduan errepide zabal madarikatua? Turismoa egiteko? Tira, tira, nahikoa dugu Euskal Herrian.

Elgeako zentral eolikoa: hortik guk energia sortuko dugu; beraz inportatu ez; agian merkeago irtengo zaigu. Etekin horrekin beste zertzeldaren bat inportatuko dugu, eta garestituko digute. Eta gure gogo iluna ezingo da garbitu Elgeako paisaian.

O, Euskal Herria! Non zinen eta non zaude!

Jon Otero Uribarren

Gutunen araudia

Arrasate Pressen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira, nahita ez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakoa balitz, laburtzeko eskubidea izango du erredakzioak. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimoak eta gaitzizen edo inzialez datoztenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordeen kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarririk ez da argitaratuko.
- Gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du, egilea bera dela egiaztatzeko. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 24**
 • Morales, San Andres
- Larunbata, 25**
 • Azkoaga, Ferrerías
- Igandea, 26**
 • Azkoaga, Iturriotz
- Astelehena, 27**
 • Korkuera Musakola
- Asteartea, 28**
 • Irizar, Erguin
- Asteazkena, 29**
 • Amezua, Santa Marina
- Osteguna, 30**
 • Zabala, Zarugalde

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Gustatuko litzaizuke 120 urte hartzea?

Zahartzaroaren genea kenduta 120 urte hartu omen ditzake gizakiak.




Mikel Ibarra
(18 urte)
Ikaslea

Segun eta zein baldintzatan. Osasunez ondo banengan, bai, baina sufritzen egoteko, ez.



Marcelino Zalama
(66 urte)
Erretiratua

Zertarako hainbeste? Adin normal batera iritsi eta kitto; horrela behar du. 120 urte basatikeria iruditzen zait.



Jose Luis Enekotegi
(39 urte)
Langilea

Xixko eginda egoteko... ez dut uste merezi duenik.



Jose Ignacio Zubizarreta
(52 urte)
Langilea

Orain bizi naizen bezala iritsiko banintz, bai.



Maria Isabel Merino
(47 urte)
Langilea

Badut 100 urteko amonabat, baina niri ez litzaizuke gus-tatuko.



Ana Gomez
(27 urte)
Langilea

Ez, ez nuke nahiko, nire familia eta lagunak galduko nituzkeelako.



Raquel Barcenilla
(24 urte)
Langilea

Baldintza onetan eta bizi-tza kalitate onarekin, bai, gus-tatuko litzaizuke.



Begoña Lasagabaster
(37 urte)
Langilea

Ondo biziz gero, bai, jakina.

GUBI
Ileapaindegia

Otalora 5, 1-B • ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

Buruan dituzun arazoei agur esan

Sagardotegia Txotx egin!

ITUROIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 55 85
ARAMAIO

USTEAK USTE

Alokairuak garestiegiak

Ia bi urte daramatzat Arrasaten lanean, eta egunero bi joan etorri egiten ditut Antzuolara. Dagoeneko bueltaka ibiltzeaz aspertu naizela eta, Arrasaten etxe bila hasi naiz. Baina ez da lan erraza. Batetik, dauden etxerik gehienak ikasleek dituzte alokatuta eta bestetik, libre daudenek sekulako errentak dituzte. Ikasle garaian Bibo bizi nintzen alokairuan. Sekulako errentak ordaintzen genituen hilero. Ikasleek etxebizitzak behar dituztela eta, jabeak aprobetxatu egiten zirela banekien. Baina hori ez da han bakarrik gertatzen. Arrasaten 68 m²ko etxe bat hileko 100.000 pezetan eskaini digute.

Ez naiz ezer asmatzen ari etxebizitzena Arrasaten arazoa dela esaten badut, baina nolabaiteko neurriak jarri beharko direla esango nuke. Gero eta jende gehiago etortzen da lanera eta ikastera eta ez da etxerik guztientzat, ez behintzat ordaindu daitekeenak. Alokairuena gehiegikeria handia da, ia kredituak baino garestiagoak dira eta. Laguntza politika izan daiteke irtenbide bat, baina horretarako udalak neurriak hartu beharko lituzke.

Marijo Deogracias



Kooperatibismoa

* Mikel Olabe

Kooperatibismoa jaio zenean, industria izugarri ari zen zabaltzen, enplegua nonahi zegoen eta mugarik gabeko produktibismoa zen nagusi. Kontua produzitzea zen; ez zen kontuan hartzen antolamendu-modu batzuek eragin kaltegarria izan dezaketela osasunean, eta produkzio-modu batzuek eta baliabide naturalak gehiegi erabiltzeak izugarri hondatzen dutela ingurumena.

Kooperatibismoa Euskal Herrian, asaldura politiko handiak bizi ziren sasoiari sortu zen: Sabino Aranaren nazionalismoari lehen errebaso handia egin zitzaion, ETA jaio zen (orientabide sozialagoarekin), Ikastolak sortu ziren eta abar. Eta hori guztia frankismoan.

Garai hartan kooperatibak txikiak ziren eta, askoz errazagoa zen horiek kudeatzea. Gaur egun, kooperatibak oso hazita daude. MCC garrantzi handiko enpresa-erakundea da. Oinarrizko kooperatiba batzuk enpresa-bolumen handikoak dira, salmenta,

langile, ibilgetu eta abarren aldetik eta horrek zaildu egiten du bazkideen partehartzea.

Testuinguru horretan, gizarte-ekonomiako enpresak sortu ziren. Defendatzen diren "balore kooperatiboak" ideal sozial, erlijioso etab. jakinak dituzten gutxi batzuek kooperatibetan errotu nahi dituzten ereduak dira. Gaur egun, kooperatibetako zuzendari-tzetan ez daude balore horiek bultzatu zituzten pertsonak. Egoera sozial eta politikoa nabarmen aldatu da eta gutariko batzuek uste dugu heldu dela balore horiek eztabaidatzeko garaia. Kooperatibismo kualitatiboaren aldeko

“
Kooperatibismoa birplanteatzea da, nire ustez, zalantzarik gabe egin beharreko ahalegina
”

apustua egiten dugunontzat, hauek izan daitezke "balore berriak":

- Lan-osasuna: Produkzio-sistemetan, prebentzio eta aldaketen lehentasuna.

- Ingurumena: PRODUKZIO GARBIA lehen-gaien erosketatik hasi eta birziklapen eta hondakineta.

- Lan-jarduna banatu eta gutxitu: Kooperatibismoak bere izpiritua "sozial eta solidarioa" zabaldu.

- Berdintasuna: Emakumeen ehunekoak zuzendaritza postuetan eta indize altuko postuetan gehitu.

- Erretiroak: Borondatezko erretiro-sistema bat jarri, 60 urterekin egoki erretiratzeko aukera izateko.

- Ezindu fisiko eta psikikoentzako lanpostuak: Legeek eta baita gure sentikortasun sozial goraiatuak ere horixe eskatzen digute.

Kooperatibismoak eztabaida honi heldu behar dio. Eta argi eta garbi esaten dugu euskaldunok erabaki behar dugula gure etorkizun sozial eta politikoa. Gainera, gure enpresek gaur egun duten egiturari eustearen aldeko ahalegina egin behar dugu, kooperatibetan lan egiten dugunon lan baldintzak errespetatu eta hobetuz.

Kooperatibismoa birplanteatzea da, nire ustez, zalantzarik gabe egin beharreko ahalegina.

* Fagorreko Kontseilu Sozialeko kidea

Pando
ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxe: 943 79 79 70

MZ
ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikari erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel./Faxe: 943 79 01 82

mezak

San Joan parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

20:30 (euskaraz)

Igandea

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (erdaraz)

Uribarri

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:00 (elebiduna)

11:00 (euskaraz)

12:00 (erdaraz)

13:00 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:30 (erdaraz)

11:30 San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santamañako parrokia

Jaiegun bezpera eta larunbata

19:00 (erdaraz)

Igandea

12:00 (erdaraz)

eskelak

Eskelak,
esker onak
eta urteurrenak
jartzeko tartea

Tel.: 943 71 23 91

LEHENENGO URTEURRENA



Jose Luis
Garay
Azkarretazabal

Urtebeteko meza, Arrasateko Juan Bautista Parrokian
2000.eko martxoaren 26an, 12:30etan ospatuko da.

Aurrez esker ona bertaraten zaretan guztioi.
Bere emazte eta seme-alabek.

jaiotzak

- Maitane Iraeta Gutierrez. Martxoaren 7an.
- Josune Garay Sanchez. Martxoaren 7an.
- Liher Unzueta Perez. Martxoaren 9an.
- Ander Llodio Bergaretxe. Martxoaren 13an.
- Miren Karmele Pando Markina. Martxoaren 11n.
- Sara Davila Davila. Matxoaren 20an.

hildakoak

- Diego Landa Gonzalez. Martxoaren 20an. 17 urte.
- Pedro Castro Carrasco. Martxoaren 15ean. 59 urte.
- Jesus Sanz Gamazo. Martxoaren 13an. 85 urte.
- Victor Wilfrebo Rivas. Martxoaren 16an. 51 urte.
- Agueda Olabegoya Isazelaya. Martxoaren 20an. 90 urte.
- Hipolito Uriarte Barrutiabengoa. Martxoaren 20an. 86 urte.
- Tomasa Hernandez Bernal. Martxoaren 20an. 89 urte.

ezkontzak

- Iban Ascasibar Aguirre eta Maria Carmez Ortiz Castillo.
Matxoaren 18an.



ESKER ONA



2000.eko martxoaren 20an hil zen

Hipolito Uriarte Barrutiabengoa

Bere familiak bihotzez
eskertzen ditu jasotako doluminak
eta hileta elizkizunetara etorri izana.



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

24

ostirala

■ ZINEA

El Talento de Mr. Ripley, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ CIMEK 25 URTE

CIMEk bere 25. urteurreneko amaierako ekitaldia izango du gaur. Jose Mari Saiz, CIMEko lehendakaria, Jesus Garmendia, Humanitate Fakultateko dekanoa, Adelaida Maidagan, CIMEko zuzendari orokorra, eta Javier Reteigi, MUko erretore gorenaren izango dira. CIMen egoitzan, 18:00.

■ KONTZERTUA
GO-JAMEN

The Peepshows taldeak kontzertua eskainiko du Bergarako Go-Jam aretoan. *Naum* eta *Purpura* taldeek ere joko dute. 22:00.

■ RUNBA EMANALDIA
GAZTETXEAN

Des+karados runba talde kataluniarrak kontzertua eskainiko du. Gaztetxean, 21:30.

25

larunbata

■ ZINEA

Toy Story 2, 17:00 eta 19:30, eta *El Talento de Mr. Ripley*, 22:00, Alai zineman.

■ LUDOTEKA IBILTARIA
SAN ANDRESEN

San Andres herri eskolan izango da Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria. 3-12 urte bitartekoei dago zuzendua. 11:00-13:00.

■ UDABERRI FESTA
GAZTETXEAN

Bi ekintza antolatu ditu gaurko AGAKOK, Udaberri Festa ospatzeko. 14:30etan bazkaria izango da, eta gauran, berriz, DJ festa, biak gaztetxean.

■ ABESBATZEN
TOPAKETA

Debagoieneko eskola arteko abesbatzen topaketa izango da gaur. Amaia antzokian, 11:30 eta 17:00.

26

igandea

■ ZINEA

Toy Story 2, 17:00, eta *El Talento de Mr. Ripley*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ KANTAUTOREAK
GO-JAMEN

Ibon Serrano eta David eta Maribel kantautoreek kontzertua emango dute Bergarako Go-Jamen, 21:30.

28

asteartea

■ ZINEA

El Talento de Mr. Ripley, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ ESKANDINAVIAZ
SAN VIATORREN

Eskandinaviari buruzko hitzaldia eskainiko du San Viatorren Josu Iztuetak, Tolosako Nairobitarra kultura elkartearen kideak. Mediatekan, 19:00.

■ SAXOFOI ETA
FAGOT KONTZERTUA

Saxofoi eta fagot kontzertua antolatu du Arrasate Musikalek. Euren egoitzako areto nagusian, 19:30.

■ ESKOLA ANTZERKIA

Hezkuntza sailaren eskutik, Eskola Antzerki Jardunaldien egitarauaren barruan *Mohikano Antzerkia* eskainiko zaie DBHko 12 eta 13 urtekoiei. Amaia antzokian, 11:00 eta 15:00.

■ EKOLOGISTEN
HITZALDIA

Bailarako ekologisten taldeak harrobien inguruko hitzaldia eskainiko du. Monterron, 19:00.

27
astelehena

■ ZINEA

El Talento de Mr. Ripley, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

29

asteazkena

■ AED-N BATZARRA

AED elkarteak batzar nagusia izango du gaur. Bere egoitzan, 18:30 eta 19:00.

■ MOZAMBIKERAKO LAGUNTZA

Harreman Arrasateko Hirugarren Mundu taldeak bi kontu ireki ditu Mozambikeri laguntzeko: Kutxan, 2101.0024 1001 2298 6177, eta Euskadiko Kutxan, 3035.0002 1000 2003 3659.

■ AUTOBUSA MUGARRARA

Domeka honetan, hilaren 27an, irtengo da Besaidek Mugarran egingo duen mendi martxarako autobusa. Besaideren egoitzan, 7:15.

■ YOGA HIZPIDE

“¿Que es el Yoga?” izeneko hitzaldia eskainiko du Alfredo Iglesias yoga irakasleak. Hilaren 31n, Monterrón, 19:00.

■ PINTURA LEHIAKETA BERGARAN

III. Abdon Juaristi pintura lehiaketa antolatu du Bergarako Zezen Zaleak elkarteak. Irabazlearen lana Pentekoste jaietan Bergaran egingo den zezen jaialdiko kartela izango da. Eraman lanak Errotaldera, maiatzaren 10etik 19ra.

■ ZAHARTZAROARI BURUZKO IKASTAROA

“Zahartzarora eta ardura paliatiboak” izeneko ikastaro espezializatua hasi du Arrasateko Hirugarren Adineko Komunitate Institutuak. Martxoaren 28an hasiko da. Izena emateko edo argibide gehiagorako: 943 77 16 99 edo 943 77 17 15.

■ TAILAGINTZA IKASTAROA

Tailagintza ikastaroa eskainiko du ARTEK, Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Apirilaren 1ean hasiko da ikastaroa, eta hasiera mailako ezagupe-nak landuko dira. Argibideak, ondoko telefonoetan: Jose Mari (943 79 77 57) eta Imanol (943 79 67 64).

■ NORTASUN AGIRI BERRIAK

Hilaren 29an, eguazte-nez, Nortasun Agiriak jaso beharko dituzte ondorengo zenbakiak dituztenek: 1.331tik 1.460ra artekoek. IMIko lokaletan, 9:45-12:45.

30

osteguna

■ HITZALDIA SAN VIATORREN

Nepalen inguruko berbal-dia eskainiko du San Viatorren Joxe Ramon Agirre alpinista ataundarrak. Mediatekan, 19:00.

■ GITARRA KONTZERTUA

Gitarra kontzertua eskainiko du Arrasate Musikalek. Bere egoitzako areto nagusian, 19:30.

■ ARKO-REN BATZARRA

ARKO elkarteak batzar nagusia izango du gaur. Monterrónen, 18:30 eta 19:00.

■ ZINEA

Udaleko Kultura sailak antolatuta, zine-kluba izango da Amaia antzokian. Samira Markhbafen *La Manzana* filma eskainiko da, 22:00.

Urte Santuko hitzaldiak

Urte Santua dela eta, hitzaldi sortak antolatu dituzte herriko parrokiek. Hilaren 27tik 31ra arte, Uribarriko parrokian eta Santa Teresa elizan izango dira hitzaldiak. Uribarrin, Jose Angel Agirre apaizak egingo du berba, 19:00etan, eta Santa Teresan, berriz, Jabier Gomez, Eskoriatzako parrokoa, arituko da, 19:30etan. San Juan Bataiatzailearen parrokian, apirilaren 3tik 7ra bitartean izango dira solasaldiak, Jabier Gomez en eskutik. Egun horietan, San Andres-Jasokunde elizan Jabier Zubizarreta, Katekesiko arduraduna izango da, 19:00etan. Azken hitzaldi sorta San Frantzisko elizan eskainiko da, apirilaren 10etik 14ra, 19:00etan. Jose Luis Agirretxe frantziskotarra izango da hizlari.

GATZAGA

1 Omenaldia

Omenaldi polita eskaini zien zapatuan Gatzagako herriak Juan Mari Makazaga "Pequeño" alguazil izandakoari eta Eugenio Otxoa alkateari. Udaletxe aurrean omenduak eta herritarrak elkartu ondoren, ospakizuna hasteko, punta puntako bi bertso lariren saioa izan zen, Jon Sarasua eta Andoni Egañarena, alegia. Ondoren, alkateak eskerrak eman zizkien bie egindako lanagatik, eta Gatzagako seme kuttun izendatu zituen. Gainera, Gatzagako museoak alkate ohiaren izena eramango duela, eta Gerra eta Pequeñoen aurpegiekin buruhandi bana egingo dutela jakin arazi zuen alkateak. Azkenik, aureskua dantzatu zuen zortzikote batek, eta herri bazkariak amaitu zen egun berezia.

BERGARA

2 Ermitaren auzia

Askarruntz auzoko Santa Katalina ermitak eztabaida suspertu du herrian. XV. mendeko eraikin erlijioso hori oso egoera kaskarrean zegoen aspalditik, eta joan den aste-

an, ermitaren bi horma eta teilatu zati bat erori ziren. Kapiroxiok, ondarearen alde lan egiten duen taldeak, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta udalak utzikieriaz jokatu dutela salatu du. Udalak, bere aldetik, gobernu batzordean landu zuen gaia, eta denetariko


iritziak daude: alderdi batzuen esanetan, eraikinaren arrasto-ei eutsi egin behar zaie, eta eroritako teilatuaren ordez beste estalkiren bat ipini. Beste batzuen esanetan, berriz, arazoa Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako teknikarien esku utzea da irtenbiderik ego-

kiena. Azkenik, Askarruntz auzoko bizilagunek ere izan dute zer esanik. Izan ere, ermita ondare publikoa denez eta jaberik ez duenez, auzokoek zaindu izan dute urteotan, eta udalari jakinarazi diotenez, ez dute ermita berreskuratzeko interesik.

OÑATI

3 Irratia Olakuan

Oñati irratiak sortu zenetik aldaketarik garrantzitsuenak izan zituen joan den astelehenean. Sortu zenetik, orain zortzi urte, kultur etxean zuen egoitza irratia. Baina txoko hau oso txikia eta zaharra zen, eta beste toki egokiago baten premian zegoen herri komunikabidea. Eta azkenean lortu du: orain bi astetik, Olakua auzoko Bidaurreta dorretxetik emititzen ditu programak. Irratiaz gain, Kontzejupetik aldizkaria ere bertara pasako da hil honetan, Erdi Aroko jauregi hau komunikabideentzako utzi baitu udalak. Oraingoz, irratikoek badute lagun berri bat: programazioa ermaten lagunduko dien ordenadorea. Hala ere, arduradunek teknologia menperatu arte lehengo bezala jarraituko du emisioak.



Carmen solariuma

Beltzaran egon nahi duzula?

12 saio: 7.000 pta.



Ferrerias, 50 behea • Tel.: 943 79 03 63



ESTELLA ORTOPEDIA

Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna
Osakidetzarekin eta Lagun Aroekin hitzartua

Mastektomietan...

- Bainujantziak
- Protesiak
- Bularretakoak



RPS 421/97

Anita^{care}

Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63

astea bi hitzetan

■ **Gazteen bizi baldintzen alde**

Jarrai Gazte Erakundeak kale agerraldia egin zuen pasa den ostiralean Seber Altube plazan hasita.

Besteak beste, aldi baterako lan enpresak ixtea eta lan baldintza duinak eskatu zituzten.

Manifestazioaren antolatzaileen arabera, Madrildik eta Paristik dependentzia eta miseria baino ez dute jasotzen euskal gazteek eta horregatik beharrezkotzat jo dute egoera aldatzea, indarrak Euskal Herriari begira kokatuz.

Era berean, gaurko, ostiralerako, greba orokorra eta borroka eguna deitu zuen Jarrai erakundeak.

■ **Eroski osasuna lantzen**

Pasa den astean hasi eta aste honetan zehar, osasuna hizpide izan da Monterronen

Eroskiren eskutik. Denetarik landu da, gainera, hitzaldi sorta honen barruan. Menopausiari buruzkoa izan da lehenengo hitzaldia eta elikadurari buruzkoa hurrengoa.

Aste honetan, berri, gaitasun kardiobaskularrak eta hipertentsioa landu dira martitzenean eta bizkarra modu egokian zaintzeko aholku praktikoak ere entzun ahal izan dira.

Eroskiren Kontsumitzaileen Eskolaren ekimena izan da hitzaldi sorta hau. Egungo bizitzarekin lotutako gaiak kontsumitzaileen ikuspegitik aztertu eta eztabaidatzea du helburu. Pixka bat hobeto bizitzen laguntzeko eskola praktikoa izatea.


Ohi den moduan, Monterongo hitzaldi aretoaren jende ugari gerturatu da hitzaldietara.

■ **Elbarriak Mondragoen**

Gipuzkoako federazioak Arrasaten izan du asteburuan bere urteroko batzarra. Hementxe izan ziren federazioko 40 bat kide. Batzar honetan aurtengo helburuak finkatu zituzten, besteak beste. Hauen artean, nagusia, Irisgarritasun Legea sustatzea da.

Irisgarritasun legeak dienez, baliabide guztiak erosotasunez erabiltzeko aukera izan behar dute elbarriek. Baina zehaztasun teknikoak falta zaizkio legerari. Hori dela eta, oraindik egoera larria jasaten dute elbarriek.

Eusko Jaurlaritzak eman behar ditu legea finkatzeko arauak. Hala ere, elbarrien federazioaren esanetan, udal bakoitzak asko lagun dezake, herriko zerbitzuak elbarrirentzat egokituz, eta hiri-gintza proiektuetan euren beharrak kontuan hartuz.



■ **San Andresen kulturaz gozatzen**

Pasa den astean amaitu ziren San Andres Herri Eskolako Kultura Jardunaldiak. Umeei euskal kultura hurbiltzeko helburuarekin, makina bat ekitaldi izan zituzten ostegunean hasi eta martitzenera arte.

Txontxongiloak, magia saioak, ipuin kontaketak, ahikido erakusketak, tailerrak, zinema eta idazle-berbaldiak izan zituzten aukeran San Andreseko gaztetxoek.

“ Esan daiteke asmakizun hau, galtzena, Astorek egin zuela. Galtzak elastikoak dira eta guretzat abantail handia izan zen eta gaur gauza berberarekin segitzen dugu eta polita izateagatik, gustura nago. Astore gurekin dagoelako. Bertakoa da, Euskal Herrikoa eta nik beti onartu dut hori. Eta arropen gainean zer esan... kalitate handikoak dira eta ez da arazorik izango. Orain nire partetik jarri behar, ia jokatzeko moduan jartzen naizen”.

JULIAN RETEGI

ATB

(2000.3.22)

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketak eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE

Tentsio altuko kablearekin ika-mikak

Musakolatik Aretxabaletako Ederlaneraino 30 kwko kable bat jartzeko asmoa dela eta, Mondragoeko Udalak Iberdrolari emandako baimena baliogabetzea gomendatu du Arartekoak. Arartekoaren ustez, Arrasateko Udalak lizentzia emateko orduan ez du funtsezko tramite bat bete. Alegia, udalak ez zion espedientea bidali Gipuzkoako Foru Aldundiari, legeak agintzen duen moduan.

Herriko udalaren ustez, baina, onura publikoko zerbitzuak tramitatzeke orduan, bestelako irizpide bat egin behar da. Halaxe ezartzen omen du Lurraren Erregimenari eta Hiri Antolaketari



Hainbat nekazari ez daude batere pozik kablearen ibilbidearekin.

buruzko araudiak.

Fagor Ederlanerako kablea, era horretako zerbitzutat jotzen du Mondragoeko Udalak. Halaxe erabaki da aste honetako Gobernu Batzordean. Hori dela eta, ez du uste

Arartekoaren gomendioa jarraitu beharko litzatekeenik.

Arrazonamendu honekin, udalak egoera argitzea eta zehaztea eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Departamentuari.

Ganberradak asteburuan



Jendeak paseatzeko edo denbora pasatzeko erabiltzen dituen zenbait lekutan txiki-zioak agertu ziren pasa den astelehenean. Aurreko astean Santa Barbara parkean bi platanero bota eta eraman zituzten; oraingo honetan, Zalduspeko zubian bost argi apurtu dituzte eta alboko bi burdina lapurtu.

Eroski alboko zubian, berriz, Arrueneko zubian, zerra batekin hainbat ebaki egin diote eskubanda bati. Zubian bertan, gainera, su markak daude.

Monterronen ere ibili dira eta jarleku baten oinean zeuden zortzi harlauza bere lekutik atera eta urmaelera bota dituzte. ATBko platora ematen duen ateko bi kristal ere apurtu dituzte.

Bukatzeke, Santa Barbaran, azkenaldian ohi den moduan, zakarrentziak bere lekutik atera eta bota egin dituzte. Gogoratu aurreko astean bi zuhaitz moztu zituztela Santa Barbaran.

Antza denez, herriko edo inguruko gazte talderen bat ahal duena apurtzen dabil denborapasa moduan.

Herritar ugari kanpo zorraren aurka



Kalean jende ugari ibiltzen den tokietan jarri ziren mahaiaik.

Azken orduko debeku eta atzerapenei aurre egin ondoren, pasa den domekan egin zen kanpo zorrari buruzko herri galdeketa. Jende nahikotxo hurbildu zen, gainera, egun guztian zehar kalean izan ziren bozketak mahaietara. 2.930 boto

lortu ziren, guztira. Hauetatik 2.852, 18 urtetik gorako herritarrek eman zituzten eta beste 71, 16-17 urte arteko gazteek.

Aretxabaletan 866 boto jaso ziren guztira.

Hauetatik 17 adin txiki-koenak.

Salaketak San Juan de Diosen

San Juan de Dios ospitaleko Enpresa Batzordeak salatu duenez, eguneko ospitalean dauden gaixoak egoera kaskarrean daude.

Salaketen arabera, gaixoen hirutik bik ez dute orain dela gutxi inauguratu ziren zentro berriez gozatzeko aukerarik. 275 gaixo inguru oso egoera kaskarrean omen dauden bi pabilioitan bizi dira. Bai prestakuntza aldetik, eta bai azpiegiturari dagokionez, gabezia handiak eta arazo larriak omen dituzte gaixo horiek.

Enpresa Batzordearen arabera, logeletan 4 edo 6 ohe, edo gehiago dituzte. Soldaten inguruan ere kexu ageri dira.

Ospitaleko zuzendaritzak ez du gai horri buruzko adierazpenik egin nahi izan.

Gaztetxearen etorkizuna finkatzen

Mondragoen zelako gaztetxea nahi edo behar den erabakitzen ari dira egunotan herriko gazteak. Pasa den eguakotzean ekin zieten herriko gazteek Gaztetxearen etorkizuna finkatzeko bilerei. Izan ere, udalak datozen hiru urteotan 200 milioi pezeta inbertitzeko asmoa duela eta, Gaztetxeak izango duen antolakuntzaren ardatzak finkatzeko jardunean dabiltza.

Herriko hainbat talde ari da lan hori betetzen, AED, Jarrai, musika taldeetako ordezkariak eta Gaztetxeako ordezkariak, hain zuzen ere. Udalaren izenean, berriz, Gazte Batzordeko zinegotzia dabil ordezkari moduan.

KALE INKESTA

Orain arte ikusitakoarekin, era-



Gaztetxeari buruzko galdeketa egingo da herrian.

baki dute komenigarria dela Gaztetxeari buruzko galdeketa herrian zabaltzea. Modu honetan Mondragoeko gazte guztien edo gehienen interesak zehaztu eta horien arabera denontzako egokia den Gaztetxea antolatu eta egin ahal izateko.

Horretarako, kale galdeketa edo kale inkesta bat egiteko asmoa du Gaztetxearen baitan bildu den taldeak. Ondoren, galdeketa emaitzek zehaztuko dituzte hurrengo pausoak. Beraz, oraindik luze samar joko duela dirudi.

Mendietan mugarririk

Arrasateko Udalak udal jabe-goko mendiak garbitzeko eta mugak zehazteko lanak adjudikatu ditu. Lan hori "Raul Gonzalez Maldonado y otro, CB" enpresari eman dio Udalak.

Hasteko, 10 hektareatan egingo du garbiketa lana, Hidalgo mendian hain zuzen ere, baina, guztira 264 hektarearen jabe da udala eta guztiak mugarririk eta garbituko dira. 1.000.000 pezeta ordainduko du Udalak lan honen gainetik. Foru Aldundiak ere emango du diru laguntza. Diputazioko basozainak dabil-tza, laguntza lanetan, mugak zehaztea uste baino zailagoa baita. Legegintzaldi honetan Arrasate mugarririk inguratu nahi da.

Aztarnak agertu dira Olarten



Olarte kalean aurkitu duten harresi zatia.

Olarte kaleko lanetan egiten ari diren jarraipen arkeologikoa hasi da fruituak ematen. Pasa den astean, horma zati bat aurkitu zuten kaleko lanak egiten ari zirela eta arkeologoen esanetan, Mondragoeko harresi zaharraren zatia dela dirudi. Izan ere, harresia egon zen tokiaren parean azaldu dira aztarnak, kantoi batean. Horrela, litekeena da antzinako dorre baten aztarnak izatea.

Bestalde, burdin hondakinak ere topatu dituzte, harresi zatiari itsatsita. Burdinola baten aztarnak izan daitezke hauek; izan ere Olarte izenak salatzen duen moduan, burdinolen kalea izan zen garai batean.

Dena dela, Olarte kantoiaren zabalera guztia jaso arte, azterketekin jarraituko dute. Oraindik goiz da, beraz, ondorioak ateratzeko.

Kulturaz blai Institutuan

Arrasate-Aretxabaleta Institutuan jo eta sua ibili dira aste honetan. Ikastetxearen Kultura Astean zeharo murgilduta, makina bat ekitaldi izan dituzte egunotan.

Asteartean hasita ostirale-ra arte, magia eta musika saioak, antzerkia, herri kirolak, bertsoak eta taillerak izan dituzte. Guztion gustorako saioak.



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA


Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Euskara baztertuta Administrazioan

“Euskarak eta euskaldunok justizia administrazioan jasaten dugun egoera” salatu da aste honetan Monterronen. Egoera gainditzeko ezarri behar diren oinarrien berri ere eman da. Horretarako euskararen alde egiten duten herriko elkarte gehienak bildu dira euskararen aldeko manifestua sinatzeko: AED, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Euskalan, Emun eta Ekin Emakumeak elkarteak. Baita, San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastolen ordezkariak eta ELA eta LAB sindikatuak ere.

Justizia Administrazioan euskara erabiltzeko eskubidearen aldeko sei puntuko agiriari onespina eman diote aipatutako taldeek.

Sinadura ekitaldiaren ondoren, Luis Barinagaerrementeria, Abokatu Euskaldunen Sindikatuko kideak euskararen egoerari buruzko hitzaldia eman zuen. Justizia Administrazioan euskararen



Euskararen alde lan egiten duten talde gehienek sinatu dute manifestua.

erabilera benetan urria dela adierazten duten datu benetan esanguratsuak azaldu zituen. Honen adibidea da EAEn 22 magistratu ari direla lanean eta horietatik inork ez dakiela euskaraz. Nafarroan ere 9 magistratu dabilta, eta hor ere denak erdaldunak dira, nahiz eta erkidego bietan hizkuntza ofiziala izan. Halaxe adierazten da Monterronen aste hone-

tan gai honi buruz izan den erakusketan.

Gogoratu, bestalde, ekitaldi hau antolatu duen Euskaldunon Eskubideak Justizia Administrazioan izeneko lan taldeak, datorren martxoaren 30ean gai horri buruzko mozio bat aurkeztuko duela udalbatzarrean. Sinatu duten agiriarekiko udalaren atxikimendua lortzea da helburua

Luzuriaga mugagabeko greban

Tafallako Luzuriaga enpresako langileek mugagabeko grebari ekin diote gaur. Langileek salatu dutenez, MCCko arduradunekin izan dituzten batzarrek ez dute emaitza onik izan. Horregatik erabaki dute kalera irtetea. Orain arte egun bateko lanuzteak egin dituzte bost astean zehar. Tartean Mondragoera ere etorri ziren, eskariak aldarrikatzera. Besteak beste, 130 lanpostu ez desagertzea eskatzen dute.

Argindar gehiagoren beharrik ez

Iberdrolak txosten bat bidali du Arrasateko Udalera Mondragoek duen argindar beharri buruz.

Iberdrolaren idatzi horretan, Fagor Ederlanerako kablea ezezik, ez da aurreikusten, gerora begira, azpiegitura elektriko handi gehiagorik Mondragoerako.

Egin beharreko lanak puntualak izango dira eta momentuko premien arabera egingo dira. Lan hauek, baina, txikiak izango dira.

Lan txiki hauen barruan, Iberdrolak, Iturriperako argi gehiago lortzeko lan bat aurreikusten da, esaterako. Kontuan hartzen dira, era berean, Zerrajeran egin beharreko instalazio elektrikoak, edo, Musakolako A 20 industrialdean behar izango direnak.

Iberdrolaren ustez, beraz, argindarrari dagokionez, Mondragoen ondo hornituta gaudu.

Oporrak INSERSOekin

INSERSOK atera du aurtengo opor eskaintza. Aprobetxatu nahi duten erretiratuek apirilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskariak Gizarte Zerbitzuen Departamentuan. Joan nahi dutenek, gutxienez, 55 urtekoak eta pentsiodunak izan beharko dira. Dena dela, Ezkontidea ere joanez gero, ez zaio horrelako baldintzarik eskatuko.

Era berean, zenbait kasutan onartuko da seme-alabaren bat ere joatea, baldin eta elbarritasuna %45ekoa baldin badu. Dena dela, aurtengo berrikuntzarik handiena hauxe



izango da: probintzia bereko bi lagunek elkarrekin joateko eskaria egin ahal izango dute.

HAUTAKETA

Guztira 400.000 lagunek disfrutatuko dituzte opor hauek.

Eskari gehiago iritsiko balitz, oostera, hautaketa bat egingo litzateke.

Zazpi pakete eratu ditu INSERSOK bere eskaintzan: penintsula, Balear eta Kanariar Uharteak, Portugal eta kultura zirkuituak.



ADI PLAENTXIARROK!

Apirilaren 7an afaria egingo dute Arrasaten bizi edo lan egiten duten plaentxiarrek. Gaueko 21:00etan izango da afaria, Arrasateko Alkartu elkartearen.

Arratsaldeko 20:00etan Portaloian elkartuko dira, "txikiteoa" egiteko. Aurten laugarren aldiz afalduko dute "Arrasateko plaentxiarrek" elkarrekin.



MOZAMBIKEREN ALDE

Jende ugari elkartu zen larunbatean Algara antzerki taldearen *Un follón de testamento* antzezlan komikoa ikustera. Zarauzko antzerki taldea diru laguntzak lortzeko sortu zen duela 13 urte. Harrezkero GKEe askorakin aritu da elkarlanean. Arrasaten jasotako dirua Mozambikera bidaliko dute. Txapela kentzeko moduko ekimena, dudarik gabe.

IZENAK

Jon Sarasua

Jon Sarasua atxabaltarra izendatuko dute itxura guztien arabera Kooperatiba Unibertsitate Institutuko zuzendari, izendapen ofiziala oraindik egin ez bada ere. Orain arte Jose Mari Larrañagak bete du kargu hori.



ZORTE FALTAN EZ

Luar Etxebarria, Irati Gallastegi eta Elena Marcos Astoreko elastiko bana eskuratu zuten, Astore eta Asegarceren aurkezpenan. Orain neskak, erakutsi bakarrik ez, e? Erabili ere egin behar dituzue!

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiralean 5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99




Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76



ZORIONAK!!!

Arizmendiko Lehenhitz haur ikastola kooperatibak marrazki lehiaketako sariak banatu zituen joan den astean. Lehiaketan 134 umek hartu zuen parte, eta horietatik 12 saritu zituzten: 11 arrasatearrak ziren. Zorionak guztioi, eta segi marrazten!




PROFESIONALEN ARTEAN

Beloki eta Patxi Ruiz Uarkapen entrenatzen izan ziren joan den astean, eta Arriaran ere han izan zen. Patxi Ruiz eta Errastik jokatu duten eskuz banakako partidari, Arriaranek Patxi Ruizen alde egingo duela aitortu zigun.

ARRANTZALE BIKAINA!

Asteburu oparoa izan du Ramon Ramilak.

1,800 gramoko amurraina eta 1,230 gramoko barboa harrapatu ez ditu, bada! Zapatuan zabaldu zen arrantza sasoa martxoaren 31ra arte. Aprobetxatu egunak, bada!



ARREGIREN ANIMALIAK MUSEORAKO



Arabako Foru Aldundiak interpretazio zinegetikoko museoa ireki nahi du Samaniegon. Juan Arregi atxabaltarraren, sasoi batean Alaves taldeko presidentea izan zenaren animaliak erabiliko dituzte, Arregik berak diseinatutako 400 bat animalia.

Bertan: diseinua lantzeko modu berria

Andoni Larrañagak eta Silvia Tauschkek maiatzean egin-go dute urtebete Nafarroa etorbideko bulegoan lanean. Hantxe ireki zuten iazko maiatzean Bertan publizitate agenzia.

Baina aurretik ere funtzionatzen zuten Bertanek. Izan ere, Andoni Larrañagak sei bat hilabetez Antzuolako bere etxetik egin zuen lan. Garai hartan Silvia diseinu industrialeko enpresa batean aritzen zen, Donostian. Aurretik ere horretan aritu zen Bartzelonan, Andonik diseinu grafikoa ikasten zuen bitartean.

Kontuak kontu, biak Arrasaten daude eta tarteka, Silviak aitortu digunez "diseinu industrial piska bat ere egiten dut. Enpresaren batek trofeo moduko irudiak eskatzen dituelako edo paketatze baten diseinua egin behar duelako... Forma bereziki eskatzen den packaging-az neu arduratzen naiz". Alabaina, packaging-a enpresa baten irudiaren arlo garrantzitsua da diseinatzaile-publizista bikoite honentzat. Eroskirentzat esaterako, lan asko egin dute aspaldian arlo honetan, Eroskiren produktuen pakete edo bildukinak egiten.

SARITUTAKO LANAK

Biek ere, diseinuarekin lotutako lehiaketa askotan parte hartu dute. Silvia esaterako Lehenhitz kooperatibaren



logotipoaren egilea da. Andonik ere Bartzelonan ari zenean sari ugari eskuratu zituen. "Winterthur enpresarentzat 1997ko egutegiko abuztuko orria egin nuen. Borges etxearentzat hemen saltzen ez den olio potea diseinatu nuen; Parisen egiten den Europako packaging lehiaketa batean bigarren eta hirugarren izan nintzen lagun talde batekin batera...". Garai hartan Andonik Zeta multimedia enpresarentzat lan egin zuen. "Hura beste lan egiteko modu bat zen. Multimediak aukera izugarriak ematen ditu, baina hemen Euskal Herrian, oraindik ez da ia erabiltzen, nahiz eta enpresa batzuek ari diren dagoeneko euren web orriak egiten". Lan arlo honekin lotuta, Ber-

tanekoak aurkezpen-txartel optikoak egiten ari dira. "Tarjeta interaktiboak dira, poltsikorako CDRomak, gutxi gorabehera. Ohiko tarjeta eman beharrean hori erabiliz gero, ordenadorean sartu eta zuri edo zure enpresari buruzko datu guztiak ikusi ahal izango dituzu. Kurrikulum, katalogo, lantegi... nahi duzuna sartzen da".

OHITURA GUTXI

Silviak eta Andonik diotenez, "hemengo enpresek euren irudiarekin zerikusia duena lantzeko oso ohitura gutxi daukate". Guk Bartzelonan lan egin izan dugu eta han bestelakoa da erabat lana. Koloreak, formak... dena aldatzen da. Hemen, esaterako, oso kolo-

re biziak erabiltzen ditugunean ez digute onartzen ideia. Gure lanetan normalean, bi kolore erabiltzen ditugu, baina euskaldunoi gorria, urdina eta berdea ez dena erakutsiz gero, akabo".

Bi diseinatzaileentzat "diseinua gaineratzen den balioa da. Diseinua zerbitzua da eta gure lana enpresa horren irudia adieraztean datza".

LANEAN HASTEKO

Enpresa edo talde baten izaera adierazteko irudiaren bila hasten direnean, Bertanen, norentzat den zehaztu behar da lehenengo eta behin. Horrekin batera, zein aplikazio izango dituen ere oso garrantzitsua da "ez da gauza bera telebista baterako edo paperean erakusteko irudia, adibidez".

- Bertan: "hemen gaude, beraz bertan", "motza eta erraza da, batez ere euskaldunontzat".
- Produktuak: logotipoak, irudi korporatiboak, publizitate kanpainak, web orriak...
- Bezeroak: Ulma, Eroski, Udalak, institutu eta lizeoak...
- Logotipoak: Ikarus, Museo de la Tipografía, Hara-giak, Lehenhitz...

bertan

diseinua&publizitatea
Nafarroa etorbidea 23, ms3
20500 Arrasate. Gipuzkoa
Tel.: 943 79 57 93
e-mail: bertan@writeme.com

UNZUETA

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrilan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Eskaaintza berezia solariumean

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

Lokal duinak eskatzen dituzte

**1987. urtean herriko musika taldeak entseguak egiteko lokal bila hasi ziren. Bost musika taldek 20 metro karratu inguruko lokal bat eskatu zuten. Ondo intsonorizatuta edo herri-
tik kanpo behar zuten egon, inor ez molestatzeko.**

San Kristobal baserria izan zen gazteen proposamenetako bat. Baina, bertarako bidea oso egoera txarrean zegoela eta udalak MCMko (Metalúrgica Cerrajera Mondragón) zati bat erabiltzea proposatu zuten, ondoren Lantegi Eskola erakiki zen tokian.

Kontuak kontu, Epeleko lokalak egokitu zitzaizkien 1991n. Ur biltegiak ziren, gazteak sartu arte. Han zegoen makineria guztia atera eta egokitzeko lanak egin ondoren, taldeen esku utzi zen bi pisuko eraikina, bost lokalekin. 7.867.150 pezeta inbertitu zituen orduan udalak egokitu eta handitzeko lanetan.

Gazteek pozik hartu zituzten lokalak, ilusioz. Haraxe eraman zituzten lanerako musika tresna guztiak.

Baina, 8 urte pasa dira ordutik eta dagoeneko gazteak ez daude hain pozik. Lokalen egoera benetan kaskarra da; hara sartzea besterik ez dago. Usaina da lehenengo sumatzen dena, hotza ondoren. Han denboralditxo bat eman eta gero, hotza hezurretaraino sartzen da eta ez da bat ere atsegina, ez pentsa.

GAZTEAK KEXU

Horixe da lokal hauetan ordu mordo sartzan duten gazteen kexu nagusia. Baina orain arte inork ez die kasurik egin. Unai Osinagak (*Numen*) eta Igor Jimenezek (*Eskizofrenia Rock*), argitu dizkigute gazte lokalen nondik norakoak gazte lokaletan dauden musika taldeen izenean.

“Orain 8 urte egindako lokalak dira. Adreiluzko lau pareta jarri eta kitto, horixe egin zuten udalak. Ordutik hona, ez dira inoiz eraberritu eta apurtzen daude, zeharo. Hezetasuna da dugun arazorik gogorrena. Pentsa, lizuna ere badugu eta hori kaltegarria da. Osasun aldetik, katarroa edo okerragoa den gaitasun bat harrapatzea da normalena. Musika tresnei dagokienez, berriz, denok dakigu hezetasuna ez dela batere ona; eta gure kasuan kontuan hartu behar da dirutza handia dugula musika tresnetan inbertituta; talde bakoitzak milioiak ditu”.

“Hezetasunarekin frogatu egin genuen behin. Burdinezko alikateak ekarri genituen eta hemen utzi. Astebe- te pasatxoren ondoren guztiz herdoilduta jaso genituen. Hor- tik kontuak atera zer gertatuko den gurekin edo gure tresnerekin...”

UDALAK ERANTZUNIK EZ

Gazteak, behin baino gehiagotan joan dira udaletxera euren beharren eta kexuen berri ematera, baina alferrik.

“Askotan joan gara udaletxera eta ez dugu ezer lortu. Badakigu urtero-urtero proposatu dela aurrekontuaren barruan gazte lokalentzako



Musika taldeak sartu zirenetik, lokalak ez dira eraberritu.

diru kopuru jakin bat, baina urtea joan eta urtea etorri, diru hori beste zerbaiterako egokitu izan da beti. Gazte lokaletan konponketa txikiak besterik ez dira egin, “ipinkiak”. Hala ere, horretan ere nahikoa kaskarra izan da udalaren lana. Argindarraren kableen egoera ikusi besterik ez dago: lekutik aterata, erdi zintzilik eta inolako babesik barik; eta arriskutsua da, oso arriskutsua. Batez ere sekulako potentzia behar dugulako musika tresnak martxan jarri eta erabiltzeko. Noizbait kableekin zerbait gertatzen bada... akabo!”


“Ondo dago, bai, doako

lokalak izatea, oso ondo. Baina gauza ez da lokalak eman eta kitto. Egia esan, zein egoeratan dauden ikusita, nik nahiago nuke udalari diru kopuru bat eman eta gauzak ganoraz egitea”.

“Nik udalari esan nahi nio-

“Lizuna ere badugu eta hori kaltegarria da”

dituzte musika taldeek



“Gustuko izan edo ez, guk ere kultura egiten dugu”

bakarra.

Jende asko geratu da kanpoan lokal barik. Ez dago denontzako adina leku. Musika talde askok, adibidez, lokal pribatuetara jo behar izan dute (garajeetara...), udaleko lokala lortzeko urtebete itxoin behar izaten da eta.

“Hori ezinezkoa da gazte askorentzat, ikasleentzat bereziki. Ez dugu alokairuetarako dirurik”.

BOST LOKAL, 13 TALDE

Lehenago esan bezala, bost lokal daude Epelen guztira bi solairutan banatuta. Lau goiko pisuan daude eta gainerakoak behekoan. Txikiak dira, oso. Handienak, 30 metro karratu ditu, hurrengoak 28, beste batek 23, 12 hurrengoak eta 10 txikiak.

Batez beste urtero 14 musika talde sartzen dira Epelen. Momentuan honakoak daude: *Supervivientes*, *Numen*, *Gospel Killers*, *Iskanbila*, *Sindy Berbenas*, *Des-Kontrol*, *Child Abuse*, *Inertzia*, *Offset*, *El hombre que dijo hockey*, *Alti-bajos*, *Los Pichones*, *Eskizofrenia Rock* eta izenik gabeko beste talde bat.

Tamainaren arabera lokalak erabiltzeko txandak zehaztuta dituzte hango 13 musika taldeek. Esaterako, 30 metro karratuko lokalean lau taldek

entsiatzen dute, 10 metro karratukoan, berriz, bik.

Talde gehienek han gordetzen dituzte trasteak, mantapean, lizundu ez daitezen eta bata bestearen gainean, guztientzat lekua egiteko. Egia esan, lokal baten baino gehiagotan nahikoa komeria izaten dute denak kabitzeko.

ORANGOZ HORRELA

Horixe da gazte lokalen egoera eta, itxura denez, hala izaten segituko du. Udalaren asmoen arabera, lehentasunak zehaztu ondoren, 2002. urtean 17 milioi pezeta inbertitzea aurreikusitako gazte lokal letan. Kopuru horrekin lokal berriak egin edo daudenak konponduko dira, momentuko egoeraren arabera. ■

Ubane Madera

ke, musika guztiak direla kultura. Ez bakarrik Goikobalu, trikitixa eskola eta horrelakokak. Gu ez gaude musika mota edo talde mota hauen aurka, ezta gutxiago ere! Baina talde horiek badute euren txokoa herrian. Udala beti kezkatu izan da talde hauekin eta leku egoki eta dezente bat eman izan die entseguak egin, ikasi edo behar izan dutenerako. Eta aizu, gustuko izan edo ez, guk ere kultura egiten dugu”.

JENDEA ZAIN

Baina da lokalen egoera, musika taldeek duten arazo



10 m² hauetan bi talde kabitu ezinda ibiltzen dira.

SHARRYN KASMIR (ANTROPOLOGOA)

“Kooperatibismoa kapi

Sharryn Kasmir antropologoa da, iparrameriketakoa. Hala ere, gertutik ezagutzen du Arrasateko kooperatibismoaren eredia, Arrasaten izan baitzen horri buruzko ikerketa lan bat egiten. Horren ondorioa da “El mito de Mondragón” liburua, Txalaparta argitaletxeak kaleratu duena. Kooperatibismoa desmitifikatzen du liburuan, bere ustez langileek kooperatibismoari buruz kontatzeko duten istorioa bestelakoa baita.

— Zein ikuspuntu dute iparramerikarrek kooperatibismoaz?

— 80ko hamarkadan Arrasateko kooperatibismoari buruzko liburu eta artikulu asko irten ziren EEBBetan, eta guztiek hitz egiten zuten nola baiteko “utopia ekonomikoari” buruz. Herriaren baloreetan oinarrituz bazkideek kontrolatutako sistemaren irudia

eskaintzen dute kooperatibek. 80ko hamarkadan eta 90eko hasieran EEBBetan krisi ekonomikoa izan zen eta jende askok Arrasatera begiratzen zuen. Ekonomia berpizteko modua ikusten zuten han, kontrol ekonomikoa eta kapitala bazkideen eskuetan ezartzen zuelako. Kooperatibismoaren sinestun bihurtu zen jende asko. Dena dela, artikulu eta liburuek ikuspegi bakarra eskaintzen zuten: kooperatibetako zuzendarien ikuspegi. Hau da, kooperatibismoaren ideologiaz konbentzimendu handiena dutenena, baina ez katean lan egiten dutenena. Ez dago dudarik, ordea, Arrasaten kooperatibismoaren beste historia bat ere badela.

— Nola eragiten du kooperatibismoak Arrasateko langileengan?

— Batetik, Arrasateko langileak gainontzeko herrieta-

koak baino hobeto bizi dira ekonomikoki, eta lan gehiago dute. Kooperatibismoak enplegua sortzen du, eta krisi garaian ere langabeziak ez du horrenbeste eragin Arrasaten. Horrez gain hezkuntza eredu bat ere sortu du kooperatibismoak, herriari asko eman diona. Baina, langileak zatitu ere egin ditu kooperatibismoak. Gainontzeko langileen arazoak (lan hitzar-

menak, grebak...) ez dituzte beren arazo bezala ikusten. Horregatik, elkartasun gabezia ere badago langileengan, eta elkartasun falta den lekuan, botere falta ere izaten da.

— Zein iritzi duzu zuk kooperatibismoaz?

— Kapitalismo modu bat da. Beharbada zerbait justuagoa eta gizatasun handiagoa, baina gizatasun hori langileak motibatuzko erabiltzen da, lan gehiago egin dezaten. Kapitalismoa ere garatzen ari da. Zapaltzailagoa da, baina era berean, irudi gizakoiagoa eskaintzen du,

“Kooperatibismoak langileak zatitu ere egin ditu. Gainontzeko langileen arazoak ez dituzte beren arazo bezala ikusten”



kapitalismo modu bat da”

langilea gehiago aintzat hartu nahi duena.

— Zein ondoriotara iritsi zara zure ikerketa lanean?

— “Beheko” bazkideez hitz egitean kooperatibako lanetik lantegi pribatu bateko lanera ez dagoela alde handirik konturatu naiz. Demokrazia eta bazkideen eskubideei dagokienez, lanean duten egunerokotasuna ez da lantegi pribatu batekoa baino hobea. Gainera katean daudenek ez dute sentitzen lantegian botere erre-alik dutenik, eta ez dituzte erabiltzen beren eskubideak ego-

era hobetzeko. Beste edozein langile bezain “alienatuta” daude. Baina noski, lantegi pribatu batean langileek beren enpresa batzordea eta sindikatuak dituzte beren burua defendatzeko, eta kooperatibetan ez.

— Kooperatibismoa langilea zeharka zapaltzeko modutzat ikusten duzu, beraz.

— Hein handi batean bai. Kapitalak langileari lan gehiago ateratzeko modua ikusten badu, “hau zure enpresa da, horregatik gehiago eskaini behar duzu, gehiago lan egin...” ideologia ere irabaziak

ateratzeko modua da.

— Zure iritziz, zergatik gertatu da kooperatibismo printzipioen galera?

— Kooperatibak txikiak zirenean eta merkatua estatu mailakoa, ideologia kooperatiboarentzat errazagoa zen aurrera egitea. Baina duela bi hamarkadatik hona errealitatea askoz ere globalagoa da. Konpetentzia globalak irabazien aurkikuntza forma ezberdinak hartzera bultzatzen du, eta kooperatibak ezin du merkatuan bizirik iraun gainontzeko enpresek egiten dutena-

ri erantzun gabe. Arrasaten jende askok pentsatzen du zuzendaritzako belaunaldi berria ez dela hain demokrata. Baliteke, baina hori bigarren mailan gelditzen da nire ustez. Arrazoia zera da: kooperatibismoa kapitalismo modu bat dela. Enpresa kapitalista guztiek moduan, merkatuari erantzuten diote.

— Zein etorkizun ikusten diozu?

— Gero eta enpresa instituzionalagoak dira. Baina, etorkizuna bazkideen esku dago. ■

Gida
2000

Aurkitu
duzu
akatsik?

Deitu 943 71 23 91 telefonora

ARRASATE

AUTOAK

Elektrizitatea

MECA. San Andres auzoa, 8 943 71 24 72

Garajeak/Konponketak

MECA. San Andres auzoa, 8 943 71 24 72

Ordezko piezak

MECA. San Andres auzoa, 8 943 71 24 72

JANTZI DENDAK

Lanerako jantziak

MEKA-HOTEL. Eroski merkatalgunea 943 77 19 44

ARETXABAETA

HEZKUNTZA

PAUSOKA HAUR ESKOLA. Otalora, 27 beheha... 943 77 03 77



Zer gertatzen da mutil?

Ez dakigu zer diren
hurren, baina gauza onik
ez ziur, aurpegi horrekin!
Motibazio falta, ala?

BESTE BAT KALERA

Oraingoan Atxanta el Retorno taldeari tokatu zaio. Piper egin zuen eta, jakina, antolakuntzak ez zion barkatu. Kale-
ra! Betrayer taldearen aurka jokatu beharra zeukaten eta kale egin zuten. Betrayer-ek garaipena eskuratu zuen jokatu barik eta horrekin batera, bi puntu gehiago, izerdirik bota barik.

Dagoeneko bidean gelditzen den zazpigarren taldea da

aurtengo Zaldibarko txapelketan. Horrela, bada, betikoa! Bakarrik geldituko direla antolakuntzakoak!

EHUNEKOTAN

Jadanik hasi da golen saila gora egiten. Aldeko eta kontrako golak, gainera. Aldekoetan gehien dituen, B multzoko Branka Taberna taldea da. 122 gol ditu alde. Atzetik datorkio A multzoko Orlando Piratas, 102 golekin. Aurrakako goletan

Giraldilla Connection taldeak dauka errekorra. 151 gol ditu aurka eta atzetik, Makai 116rekin eta Makanudos 110ekin. Bitxikeria bat: B multzoan aldeko eta kontrako golak, kopuru berbera daukate: 1.458. Parra, beraz!

SAILKAPENEO GORA BEHERAK

Ari dira bai, poliki poliki, taldeak goian edo behean kokatzen. Hasierako jardunaldietan,

Aldibik hasiera eskasa izan zuela esan genizuen, baina horrek ere dagoeneko egin du gora eta jadanik, seigarrena da, 21 punturekin. Bi multzoetako lehenengo bi taldeen artean bestalde, bi puntuko alde dago. Baina bitxikeria bat: B multzoko bigarren sailkatuak (Timoftol SMD), A multzoko lehenengo sailkatuak (Komando Alpargat) baino puntu bat gehiago dauka. 28 eta 27, hurrenez hurren.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

Betrayer 6 - AC Surkos 6
 Orlando Piratas 3 - AT Lokala 11
 You Known 4 - Saukelu Scream 4
 Kom. Alpagat 3 - Kanp. Har. 4
 Goma 2 12 - Giraldirilla Con. 3
 Xhasss Ugarte 5 - Etxe Mobil 2
 Ume Zikinak 1 - Fraguol Gol 4
 Kobate Har. 1 - Atxanta el Ret. 0
 You Know 5 - Xhasss Ugarte 6

B taldea

SAS T 1 - Txeyenex 5
 Garaje Oscar 2 - Kamasutra 4
 Koka Juniors 6 - Etxerat Tab. 8
 IKP 10 - Borrock & Roll 5
 Mekanudos 5 - AKTA 12
 Timoftol SMD 5 - Dribling 7
 Leya 3 - Branka Tab. 9
 Serengetti 1 - Potroak 0
 Alai Gozokiak 3 - Aldibi 10

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
K. Alpagat	17	12	3	2	74	54	27
You Know	17	13	1	3	98	56	27
Orlando	17	12	2	3	102	54	26
AT Lokala	17	12	1	4	82	47	25
Kanpazar Harrobia	17	11	2	4	63	44	24
Irati STS	17	11	1	5	99	62	23
Sau. Scream	17	10	3	4	62	43	23
Xhasss Ugar.	17	10	1	6	98	74	21
Ume zikinak	17	9	3	5	89	56	21
AC Surkos	17	9	3	5	82	57	21
Betrayer	17	10	1	6	73	53	21
DA Iristu	17	9	3	5	66	72	21
Kobate DKB	17	10	0	7	77	56	20
Goma 2	17	10	0	7	75	56	20
Fraguel Gol	17	9	0	8	70	75	18
Giraldirilla Con.	17	4	0	13	50	151	8
Atxanta el Ret.	17	2	2	13	33	117	6
Totem	17	3	0	14	18	37	6
Etxe Mobil	17	2	1	14	50	84	5
Sokoakoak	17	1	2	14	23	49	5
Bar Nuevo	17	1	0	16	21	91	2
Lontxo Tab.	17	0	0	17	0	17	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Dribling	16	14	1	1	76	28	29
Timoftol SMD	17	13	2	2	108	47	28
Kamasutra	17	12	2	3	68	40	26
Branka Taberna	17	11	2	4	122	76	24
IKP	16	11	1	4	91	60	23
Aldibi	17	10	1	6	71	68	21
Etxerat Tab.	17	8	4	5	81	64	20
Txeyenex	16	9	2	5	70	67	20
Serengetti	17	9	2	6	49	50	20
KJ Basati	17	9	0	8	89	91	18
Garaje Oscar	17	6	5	6	70	60	17
Aurrera Bolie	17	7	2	8	46	58	16
AKTA	17	7	1	9	63	56	15
Potroak	17	6	3	8	53	54	15
Leya	16	6	2	8	53	61	14
Borrock & Roll	17	5	2	10	68	90	12
Mekanudos	17	5	1	11	51	110	11
Alai Gozokiak	17	3	3	11	49	80	9
EPEH	17	4	1	12	43	53	9
Makai	17	3	2	12	58	116	8
KK Jaurilarizari	17	4	0	13	29	31	8
Sas T	17	2	1	14	50	98	5

ARRASATE  **KIROLAK**
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak / 18. jardunaldia

Iarunbata, 25

Zaldibar

08:50 Garaje Oscar - Serengetti (Makai)
 10:00 Makai - Aldibi (Serengetti)
 11:00 You Know - AT Lokala (Aldibi)
 12:00 Borrock & Roll - Timoftol SMD (AT Lokala)
 13:00 Ume Zikinak - Saukelu Screa (Borrock & Roll)
 14:00 Aurrera Bolie - Kamasutra (Saukelu Scream)
 15:00 IKP - Dribling (Aurrera Bolie)
 16:00 Irati STS - Fraguol Gol (IKP)
 17:00 Kobate DKB - DA Iristu (Irati STS)
 18:00 KJ Basati - Mekanudos (Kobate DKB)

Epailea

Iturripe A

15:50 Txeyenex - Branka Tab. (Alai Gozokiak)
 17:00 Alai Gozokiak - Sas T (Txeyenex)

Iturripe B

15:50 AC Surkos - Xhasss Ugarte (Giraldirilla)
 17:00 Kanpazar Har. - Giraldirilla Con. (Xhasss Ugarte)

Epailea

Epailea

Igandea, 26

Zaldibar

11:50 Dribling - AKTA (LEYA)
 13:00 Etxerat Tab. - Leya (Dribling)

Epailea

Atsedena: Orlando Piratas, Goma 2, Komando Alpagat, Etxe Mobil, Betrayer, Potroak.

FUTBOLA Neskak hobeto



Mutilak baino hobeto aritu ziren neskak. Izan ere, lehen errejionaleko neskek irabazi egin zuten Almen aurkako derbia. Mutilek, berriz, partida eskasa jokatu zuten Pedruskoren aurka. Lehenengo zatian markagailuan aurreratu ziren, baina handik aurrera bisitariak izan ziren nagusi eta bigarren zatian garaipeña eman ziteen beste bi golak lortu zituzten. Azken emaitza, 1 eta 3 Pedruskoren alde. Neskek, gol bakarra lortu zuten, baina nahiko izan zen irabazteko. Golegilea zaskun Aranbarri izan zen, aukeraz betetako partida batean. Gainera, belarretan jokatu zuten eta bi taldeetako kideak ohitu gabe daudenez, zelaia handi geldituz zitzaizela zirudien. Baina dominatzerik izan zuten eta Esti Loitiren hamaikako-

ak azkenean 1 eta 0 irabazi zion Almeni. Asteburu honetan Bergararen aurkako derbia jokatu dute Atxabalpen berriz ere.


SASKIBALOIA Azken minutuan



Kenci Arrasate saskibaloia taldeak partida galdu zuen azken minutuan. Parekatutako 40 minutuen ondoren, azken 30 segunduen barruan Tabiraren bisitariak erabaki zuten neurketa. 77 eta 78 amaitu zen. Durangokoei irabaztea garrantzitsua zen sailkapeneko tokietan alde handitzeko, baina azkenaldian gertatzen den bezala, larunbatean ere zorteak ez ziren lagundu mondragoetarrei eta 77na berdindu ondoren, durangarrek bisitariak erabaki zuten neurketa. 77 eta 78 amaitu zen. Durangokoei irabaztea garrantzitsua zen sailkapeneko tokietan alde handitzeko, baina azkenaldian gertatzen den bezala, larunbatean ere zorteak ez ziren lagundu mondragoetarrei eta 77na berdindu ondoren, durangarrek bisitariak erabaki zuten neurketa. 77 eta 78 amaitu zen.

teek, askoz ere alde handiagoarekin galdu zuten. Santo Tomas Lizeoaren aurka 33 eta 100 galdu zuten. Juniorrek, berriz, garaipeña lortu zuten San Benitoren aurka, 55 eta 67.

ESKUBALOIA Bategatik galdu




Arrasate Almen eskubaloia taldeak, bihotzekoak, izateko partida jokatu zuten Iturripen. Izan ere, azkenengo segunduan egin dako penaltiagatik galdu egin zuten etxekoek.

Lehen zatian irabazten hasi ziren, beti bezala, baina oraingoan 9. golarekin, 19. minutuan, behera etorri ziren. Bisitariak kontraerasoan emaitza onak, 13-16 Tolosa, lehenengo zatian.

Bigarrenean normalean ez dira gai izaten partidari buelta emateko, baina oraingoan

defentsan eta kontraerasoan egin zuten eta 17na ipini ziren, 19-19. Labaien bi minuturako kalera bidali zuten epaileak eta orduan bigarreneko 25. minutuan Tolosak 3 gol segidan. 24na, 25na eta 26na, berdindu zuten eta orduan epailea penaltia adierazi zuen, baina Nestorrek ez zuen sartu, gelditu egin zioten eta. Azkenean 26 eta 27 amaitu zen neurketa.

TXIRRINDULARITZA JMA Lazkaon



Lehen eta bigarren urteko kadeteak Lazkaon izan ziren Hesperren saria jokatzeko, joan den astean. Lasterketa azkarrak izan zuten eta Iñaki Juldain 8. izan zen. Aste honetan lehen urteko kadeteak Eibarrera joango dira eta bigarren urtekoak Urretxura.

Emaitzak

FUTBOLA

- **Lehen errejioanala:**
Mondra 1- Pedrusko 3
- **Ohorezko gazteak:**
Mondra 1 - Santo Tomas Lizeoa 1
- **Bigarren gazteak:**
Arrasate 4 - Santo Tomas Lizeoa 1
- **Ohorezko kadeteak:**
Arrasate 6 - Ilintxa 0
- **Infantilak:**
Union Txiki 3 - Arrasate 2
- **Neskak:**
Mondra 1 - Almen 0

ESKUBALOIA

- **Kadete:**
Beasain 12 - Arrasate 13
- **Gazte maila:**
Bergara 25 - Arrasate 19
- **Seniorrak:**
Arrasate Almen 27 - Tolosa 28

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:**
Kenci Arrasate 87 - Durangoko Tabira 88
- **Juniorrak:**
San Benito 55 - Kenci Arrasate 67
- **Kadete mutilak:**
Kenci Arrasate 33 - ST Lizeoa 100

Jokatzekoak

FUTBOLA

- **Lehen errejioanala:**
Kilimon - Mondra
- **Ohorezko gazteak:**
Euskalduna - Mondra
- **Bigarren gazteak:**
Zarautz - Arrasate
- **Ohorezko kadeteak:**
Lagun Onak - Arrasate
- **2. kadeteak:**
Aretxabaleta - Arrasate
- **Ohorezko Infantilak:**
Arrasate - Lagun onak larunbata, 10:30
- **Neskak:**
Mondra - Bergara larunbata, 14:30

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Lolola - Arrasate Almen
- **Gazte maila:**
Arrasate - Almen larunbata, 17:30

Kadete:

Arrasate - Elgoibar larunbata, 16:00

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:**
Jostaldi - K. Arrasate
- **Kadete mutilak:**
ATSS Urkitza - Kenci Arrasate
- **Kadete neskak:**
Internacional - K. Arrasate

ERRUGBIA

- **Seniorrak:**
Arrasate - Universitario 15, larunbata, 16:30
- **Juniorrak:**
Arrasate - Universitario 15, larunbata, 15:30
- **Kadeteak:**
Arrasate - Kakarraldo larunbata, 14:30

Finalera zuzenean

Partida politak jokatu zituzten joan den asteburuan Uribarren eta Jimenez bikoteak, bai eta Agirrek eta Zuazuak ere. Biek Udaberri txapelketako finalerako txartelak lortu zituzten, Añorga eta Altzaren aurkako final erdietan.

Lehen urteko kadeteak, Uribarren eta Jimenez, Añorgan aritu ziren. 16 eta 22 irabazi zuten mondragoetarrek. Igandean finala jokatuko dute Egian, Hernaniren aurka.

Bigarren urteko kadeteek, Altzan jokatu zuten final erdietako itzulikoa. Zirujano eta Abilleiraren aurka aritu ziren



Agirre, Zuazua, Uribarren eta Jimenez.

Zuazua eta Agirre. Ondo baino hobeto egin zuen euren lana, 14 eta 22 irabazi zuten. Finala igandean, Oiartzunen aurka.

DEBARROKO TXAPELKETA

Mondragoe 3 Bergara 0. Horrela amaitu zen asteartean Debarroko txapelketako neurketa. Kadeteetan, Uribarren eta Zuazua aritu ziren, Iñarra eta Larrañagaren aurka eta 7an laga zituzten bergararrak.

Gaspe mailan, Agirre eta Domingezek emaitza estuagoa egin zuten: 22 eta 21.

Afizionatuek sekulako partida jokatu zuten. Lazkano eta Zugasti aritu ziren Muguruza eta Gutierrezen aurka. 200 pilotada ere jo zituzten tanto batean. 22 eta 13 irabazi zuten etxeok. Asteartean Oñatiren aurka jokatuko dute.

Larunbatean jokatu da Uarkapen eskuz banakako txapelketako partida, Errasti eta Patxi Ruizen artean, 17:00etan. Asteartean Astore jantzien aurkezpena ere egin zuten Asegarcetok, partidarako pilotak aukeratzearrekin batera.



Lehenengoa herrian

Fagor taldeko gazteak, Arrasaten aritu ziren joan den asteburuan. Udaberri saria jokatu zuten Arrasate Txirrindulari Elkarteak antolatuta, 78 km pasatxoko ibilbidean. Josu Beitiak, herriko txirrindulari onenaren saria eskuratu zuen, 54 txirrindularik hasi eta 49k amaitu zuten lasterketan.

Lasterketa polita izan zen eta lehenengo km.etatik bi txirrindularik ihes egin zuten. Bi minutuko aldea ateratzen zioten tropelari. Geroago beste bik egin zuten ihes, tartean Josu Beitiak. Garaipena Kaiku taldeko Aitor Marcosek eskura-



Josu Beitiak herriko onenaren saria eskuratu zuen Udaberri lasterketan.

tu zuen. Josu Beitia 28. helmugaratu zen. 39. izan zen Imanol Solis; Aitor Frutosek zulatua egin zuen eta 40. hel-

mugaratu zen.

Igandean Antzuolara joango dira Uzarragako igoera izango dute eta, goizeko 10:00etan.



Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeke.

Aurreko asteko erantzuna: 2. mailako 3 talde jantzien ditu Astorek: Osasuna, Sporting eta Eibar.

Galdere: Zer esan nahi du ASTOREK?

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea: Tel.:

Kirol egokitua



Kirola guztien aukera dela erakusteko asmoz, Arrasate Kirol Proiektuak larunbatean kirola egiteko beste aukera baten berri emango die aurrekirolean eta multikirolean ari diren neska-mutilei: kirol egokitua. Ezinduendako kirol eskaintza berezia da kirol egokitua. Ekintza hori Musakolako kiroldegian egingo dute eta AKPko begiraleek azaldu digutenez "haurrak errealitate honekiko sensibilizatzea da ekintza honen helburua".

Nola egingo duten galdeztean hauxe azaldu digute: "gutxitu fisikoen ezgaitasunen bat dutela arituko dira haurrak, pertsonen zailtasunak zela-



koak diren ezagutzeko, baina aldi berean, ezgaituak ere kirola egiteko gai direla erakutsi nahi diegu". Horretarako lau ekintza antolatu dituzte:

- ☞ Saskibaloia egokitua, gurrildun aukietan
- ☞ Baloibole egokitua; lurrean eserita jokatu beharrekoa
- ☞ Boccia, petanka antzeko

jokoa
☞ Goal-balla, itsuentzako egokitutako baloi jokoa.

Larunbateko ekintza hauetarako ordutegia honako hau izango da:

Multikiroleko haurrak
09:15-11:15
Aurrekiroleko haurrak
11:30-13:30



Asteburuko hitzorduak Martxoak 25, larunbata

☞ **MULTIKIROLA**
09:15 - 11:15 Talde Guztiak

☞ **AURREKIROLA**
11:15 - 13:15 Talde Guztiak

☞ **INFANTILAK**
TENISA
Iturripe
12:00

ESKU PILOTA
Zabalotegi (Bergara)
16:00

FUTBOLA
NESKAK
Ipintza
09:45 Elgeta - SFX A
Atxabalpe

09:00 La Merced - SFX B

MUTILAK
Musakola
10:00 La Merced - Ipintza

Sailkapenak

MULTIKIROLA MINISASKIBALOIKO TXAPELKETA

NESKAK

	Jokiera	Partaidetza	Puntuak	Guztira
S. Viator A	15	13	15	43
S. Viator B	15	10	13	38
SFX U	15	12,5	9	36,5
SFX A	15	9	11	35
Erguin	15	12	5	32
La Merced	12	1,5	6	19,5

MUTILAK


- | | |
|----------------|----------------|
| 1. SFX U | 6. SFX B |
| 2. S. Viator B | 7. S. Viator A |
| 3. S. Viator C | 8. SFX A |
| 4. SFX C | 9. Erguin |
| 5. La Merced | 10. Aramaio |



JESUS LOPEZ ZULUETA (MARGOLARIA)

“Margotzea eta idaztea oso parekoak dira”

Bilbon sortu zen Jesus Lopez Zulueta 1940.an, baina gaur egun Beasainen bizi da. Lanbidez dekoratzailea den arren, orain dela 25 urtetik margogintzan ari da buru-belarri. Aste honetan dugu bere lanak ikusteko azken aukera, San Andreseko Toki-Eder kafetegian zabalik duen erakusketan.



ikuspegi bat. Gure inguruko gauza txikiak irudikatzen ditut: bi emakume elkarrizketan, edo paisaje bati begira... Giza irudia margotzea oso gogoko dut. Bestalde, pilota jokoa ere asko gustatzen zait, eta gai horri buruzko argazki-mural bat egin dut, 20x10 zentimetrokoa. Triptiko bat ere badut gai honen inguruan, baina ezin izan dut Arrasatera ekarri, eta penaz geratu naiz. Izan ere, familia dut Arrasaten eta aspalditik nembilen hori erakusteko gogoarekin, baina azkenean, toki faltarengatik, ezin izan dut koadro handiegirik eraman.

— Toki-Ederren dituzun margoetatik, bakarra ez dago salgai...

— Bai. “Amanecer” deitutakoa da. Gipuzkoako Arte Elkarteak urtero antolatzen duen lehiaketan urrezko domina irabazi zuen, eta ez dut saldu nahi izan. Oihal horretan bi emakume berbetan irudikatu ditut. Tertulia da, hain zuzen, gehien gustatzen zaidan gaietako bat. Sarritan margotzen ditut; aldatzen dudana gauza bakarra paisajea edo fondoa da.

— Noiz hasi zinen margotzen?
— Oso berandu, 35 urterekin edo. Venezuelara joan nintzen bizi izatera orain 25 urte, eta han ekin nion profesional bezala margotzeari. Hala ere, beti izan dut margogintzarekiko oso harreman estua, dekoratzailea izan naizelako. Beti nengoen marrazketa edo diseinu lanak egiten.

— Zein da zure estiloa?
— Figuratibo antzekoa edo. Dena dela, egiten dudanari etiketa jartzea ez dut atsegin. Egiten ari naizena ondo burutzen saiatzen naiz, begira ondo eman dezan, besterik barik. Estetika zaintzen dut, batik bat.

— Zer da zuretzat margotzea?
— Niretzat, margotzea eta idaztea oso parekoak dira. Margo bat ez da adierazpen modu mutua. Zentzu estetiko du, alde batetik, baina baita zentzu etiko bat ere. Beti saiatzen naiz nire margoen bidez mezu bat ematen, eta horri oso ondo antzematen zaio nire lanaren osotasuna ikusten denean.

— Zein mezu igortzen saiatzen zara?
— Ikuspegi bat aditzera ematea da nire asmoa, emakumei, gizonei, umei, eta eguneroko gauzei buruzko

“Egiten ari naizena ondo egiten saiatzen naiz, begira ondo eman dezan, besterik barik”

aste gazte

■ GAZTEAK LANKIDETZAN

• Herri erakundeek eta GKE-ek Hirugarren Munduan aurrera daramatzaten lankidetzaren programetan parte hartzeko aukera daukazu, 20 urte baino gehiago eta 31 baino gutxiago duzuenek. Uda-ko hila-beheetan izango dira egonaldiak. Epea: apirilak 4.

■ DIRU LAGUNTZAK

• Gipuzkoako Diputazioak, kultura eta gazteria alorrean, urteroko diru laguntzak jasotzeko deia egin du:

- Musika, dantza, antzerkia eta zaharberrikuntza arloetan espezializazio ikasketak egiteko bekak. Epea: maiatzak 15.
- Ikus arteetako eta literatur sorkuntza eta promozioa laguntzeko bekak. Epea: maiatzak 15.
- Arte arloko iraupen laburreko jardueretan parte hartzeko laguntzak. Epea: ekainak 15.
- Pintura eta eskultura alorrean zaharberrikuntzako lanak Artelekun egiteko diru laguntzak. Epea: maiatzak 15.

■ AUZOLANDEGIAK

• Eusko Jaurlearitzak, aurtengo Auzolandegien kanpaina aurkeztu du. Euskal Herrian, espainiar estatuan nahiz atzerrian 15 eguneko egonaldiak egiteko aukera. Izen emateko epea: martxoaren 27tik apirilaren 7ra bitartean.

■ UDALEKUAK

• Diputazioak antolatutako Udalekueetan parte hartzeko aukera, 7-13 urte bitartekoek, 7 eta 14 eguneko egonaldiak, Barria, Gorkiz, Hondarribia, Biana, Lauaxeta, Oriu, Zuhatza eta beste hainbat lekutan. Ingeles egonaldiak eta ur ekintzak egiteko aukera ere izango da. Izenemate epea: martxoaren 27tik apirilaren 5era arte.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Eskola abesbatzen topaketa izango da bihar

Badira dagoeneko 13 urte eskola arteko abesbatzen topaketa hauek Arrasate alaitasunez eta musikaz betetzen dute. Aurtengo topaketa bihar izango da, Amaia antzokian, Arrasate Ikastolak antolatuta.

Parte hartzea eta erantzuna handituz joan diren arren, topaketen helburuak hasierako berberak dira: Debagoienak eta, bereziki, Arrasatek, abesbatzekiko izan duen eta gaur egun duen zaletasuna haurren sendotzea. Eta, bestalde, urtean zehar isil-isilean gazte hauek egiten duten lan neketsuari aukera publikoa ematea. Arrasateko taldeez gain, Bergara, Oñati eta Eskoriatzako eskola abesbatzek, 705 ume eta gaztetok, astinduko dituzte euren ahots-hariak Amaia antzokian.

Bi berrikuntza sartu dituzte aldi honetan: batetik, Umezaintza, San Frantzisko Xabier eta Eskoriatzako Jose Arana-



Aurten, 700 haur inguruk hartuko du parte topaketetan.

ko haur eskola umeak batera joango dira, Lehenhitz kooperatibaren izenpean. Bestalde, San Frantzisko Xabier eta San Viatorreko ikasleak Arrasateko Ikastolaren izenpean

aurkeztuko dira. Arrasateko beste parte hartzaileak ondoak izango dira: Erguin Herri Eskola, La Merced eta Institutua.

Saioak borobil bukatzeko,

herriko hiru musika talde gonbidatu dituzte: goizean, Arrasate Musikaleko banda txikiak joko du, eta arratsaldean, Goiko-Balu Txiki abesbatzak eta The Jurassic Band gitarra taldeak.

Taila ikastaroa hasi du ARTEk



Urtero egiten duen moduan, ARTEk, Arrasateko Tailaginen Elkarteak, hastapen mailako taila ikastaroa abiarazi berri du. Apirilaren 1etik aurrera emango ditu eskolak Iñaki Zubillaga irakasleak. 30 ordu izango dira, hiru edo lau astez.

Tailagintzarekin lehen harremana izan nahi dutenei dago zuzendua ikastaroa. Hasteko, marrazki geometrikoak egingo dira, eta irudi landuagoak ondoren. Ikastaroa egiten duten guztiei ARTEko bazkide izateko aukera eskainiko zaie.

Txatxilipurdi, mugak gainditzen

Bide luzea egin du orain arte Txatxilipurdi taldeak, baina urrats berriak eman nahi ditu etorkizunean ere. Eta urrats horiek Euskal Herri osora eramango dute taldea.

Horrela azaldu zuen taldeak joan den asteko batzar orokorrean. Batzar horretan, besteak beste, aurtengo egitasmoak azaldu zituen. Lehenik eta behin, Arrasa-

ten egiten ari direnari eutsiko diote. Baina Arrasaten umeekin egiten duten lana jakinda, Euskal Herri osoko hainbat herriren eskariak jasotzen ditu Txatxilipurdik, eta herri horietan Txatxili txikiak sortzeko asmoa dute. Antolakuntza Txatxilipurdiren esku egongo litzateke, eta kudeaketa, udal bakoitzaren esku.



irakurle eta entzule

Iturria: Discopolis

diskoak

LENE MARLIN

Playing my Game (Virgin), 2.995 pta



Eskandinaviak beti eman izan du pop eta rock estiloko musikari ugari: Abba, Roxette, A-ha, Ace of Base... eta orain, Lene

Marlin. 20 urteko neska norvegiarra dugu lurralde hartako musikarekiko zale-tasunaren azken eredu. Lene Marlinek ez du izugarrizko marketing kanpainarik izan, baina talentua erruz du, eta horrek ireki dizkio arrakastaren ateak. Gitarra jotzen ikasi ondoren, lagun arteko kontzertuak eskaintzen hasi zen. Herri irratibatetik Virgin enpresara salto egin zuen, eta hainbat kanta argitaratu ditu 1997tik. Azkenean, iaz bere lehen diskoa plazaratu zuen Virginek: *Playing My Game*, eta dagoeneko 600.000 bat ale saldu ditu Europan. Pop doinu suabeak aurkituko ditugu bertan. Gogoko duzuen estiloa hori bada, aukerako diskoa duzue hau.


liburuak

IRAINKA

Euskal Irainen Bilduma

Joseba Aurkenerena, Covadonga Garcia eta Jon Zelaia

Gero argialetxea, Saski Naski bilduma 169 orr., 1.300 pta




Euskaraz ez omen dago irain hitzik, biraorik. Guri, txikitan, horixe erakusten ziguten: "Aitorren hizkuntza zaharra, biraorik gabeko hizketa garbia". Usteak ustel, ordea; liburu hau da frogarik garbiena.

Handik eta hemendik hartutako adibide asko bildu dituzte egileek liburu honetan. Batzuk irain hutsak, beste batzuk, berriz, ez hainbeste. Denak alfabetoaren arabera sailkatuta datoz, erraz aurkitzeko moduan.

Landuxeago egongo balitz, akaso...; euskara lan tresna duginontzat oso ondo dator, hala ere.

asteko filma



El talento de Mr. Ripley

EEBB, 1999. Suspentsea.

Zuzendaria: Anthony Minghella.

Aktoreak: Matt Damon, Gwyneth Paltrow, Jude Law.

HARIA

Tom Ripley misteriotsua da istoria-ko protagonista. Greenleaf izeneko amerikar aberats batek Italiara bidaltzen du bere semearen bila. Hasieran lagun min bihurtzen dira, baina Greenleafen bizitzak Ripleyren inbidia esnatuko du, eta milioiudun gaztearen nortasuna hartzea erabakiko du.

KRITIKA


Patricia Highsmithen nobela eza-gunenetarikoa baten zinerako bigarren moldaketa dugu hau, eta zinegileak eta idazleak hainbeste erakartzen dituen "Bestea" gaia jorratzen du. Inbidia eta horrek eragiten dituen jokaerak erakusten zaizkigu, eta gai honek eskatzen zuen sakontasun psikologikoa ondo lortua dago. Akatsak ere baditu: filmaren azala gehiegi zaintzeak bizitasuna gal-tzea ekarri dio.

asteburuan zer

kontzertuak

ESTILO GUZTIETAKO DOINUAK

Nork esan du mundu homogeneizatuan bizi garela? Asteburu honetako musika aukerei begirada bat emanda konturatu-ko gara gustu denentzat tokia dagoela. Ostiralean izango dugu aniztasun horren lehen adibidea: Kataluniako Des+kardos runba taldeak joko du gaztetxean, 21:30etan. Runbatik disko doinuetara salto egitea posible da, eta horrela egingo dugu guk, larunbatean Udaberri Festa antolatu baitu AGAKOk, eta DJ festa izango da bertako plater sendoenetako bat. Rockarentzat ere badago tartea eta doinu horiek Bergarako Go-Jamen aurkituko ditugu: ostiralean, The Peepshows taldeak joko du, 22:00etan. Eta domekan,



doinu pausatuagoen txanda etorriko da: Ibon Serrano eta David eta Maribel kantautoreak izango dira Go-Jamen. Esan bezala, gustu guztiak asetzeko moduko egitaraua. Edo ia.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Martxoak 31: **Boikot + El sueño de Openhiner**

Egun bakoitzerako **3** sarrera zozketatzen ditugu.

Izen-deiturak:

Tel.:


Bidali gurera: Arrasate Press, Otolara 31



Programazioa

OSTIRALA, 24

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Igor Ezpeleta, Elizondo
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Musiklasik** (errepika).



Iñaxio Olaizola.

- 20:00/20:30/21:00 **Berriak**
- 21:30 **Astebete.** Asteko berrien
errepassoa.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).
- 22:10 **Soinuz Blai.** Edu
Abasolorekin.

LARUNBATA, 25

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Musiklasik, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA, 26

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Musiklasik, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA, 27

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Eulali Maskiaran, Matiku
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Astebete.** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Mondrasport.**
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).

ASTEARTEA, 28

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Kontxi Juantorena, Uxarte
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Mondrasport.**
- 19:20 **Jolasplast.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Hamaika Magazin.** Lore
sikuak izango dira
mintzagai. Bidaian
atalean, berriz, Austria
eta Suitza bisitatuko
ditugu.



Arantza Lagunilla.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).

ASTEAZKENA, 29

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Igor Ezpeleta, Elizondo
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Hamaika Magazin**
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Aurrez Aurre** (errepika).
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).

OSTEGUNA, 30

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Alberto Elorza, Zelai
Zabal jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Aurrez Aurre** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Ekilan.** Gamei enpresak
jaso duen azken saria
aztertuko da. Gonbidatua,
Jesusa Mari Herrasti,
MCCko Naioarteko
saileko lehendakaria.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai.** Miren
Gonzalezekin.

OSTIRALA, 31

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Edurne Izarzelai,
Dukiena jatetxeko
sukaldaria.
- 13:50 **Ekilan** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko
albisterik nabarmenenak,
Eneko Azkaratek
aurkeztua.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai.** Miren
Gonzalezekin.



Miren Gonzalez.

Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Sarrerakoak

NOIZ	PLATERA
Astelehena 27	Marmitakoa.
Astearte 28	Paella.
Asteazkena 29	Azelga beteak.
Osteguna 30	Barazki eta zigala salteatuak.
Ostirala 31	Alkatxofak, baba txikiak eta almeja.

Gamei enpresaren arrakasta

Ekilan ostegunean, 21:30

Bi plater nagusi izango ditu datorren osteguneko Ekilan programak. Bate-tik Gamei enpresa, oraindik orain sari garrantzitsu bat irabazi duena eta Jesus Mari Herrasti, MCCren Nazioarte Saileko lehendakaria.

Makina Erremintaren Diseinu saria irabazi zuen Arrasateko Gamei enpresa joan den astean Bilbon, Makina Erremintaren Nazioarteko Azokan. Espainiako Industria eta Energia ministroak eman zion saria Jose Luis Mendizabal Gameiko lehendakariari.

Orain 50 urte inguru sortu zen eta gaur egun 58 langile ditu. Forjarako eta estanziaziorako prentsak egiten ditu batik bat. Bere produkzioaren ia erdia (%45) esportatu egiten da: Mexiko, EEBB, Ingalaterra, Frantzia, Alemania eta Italiara, nagusiki. Merez du Gameik horrelako tarte bat.

Programako gonbidatua Jesus Mari Herrasti izango da, MCCren Nazioarte Saileko lehendakaria. Kargu asko izan ditu Jesus Mari Herrastik azken urteotan, Fagorreko lehendakari bestek bestea. Ondo ezagutzen du, beraz, Mondragoeko kooperatiben esparrua.

MCCk nazioarterako dituen estra-



Jesus Mari Herrasti.

tegiak, asmoak, bitartekoak, aliantzak, etab. izango dituzte mintzagai. Ez dezagun ahantzi, bestalde, MCCk bilioi bateko salmentak izan zituela iaz.

Horrezaz gain, Jesus Mari Herrasti sasoi batean Aretxabaletako alkate izan zela ere aprobeztatuko du Alberto Gorritibereak, bestelako gaiez ere hitz egiteko.

Oraingoz zehazteke dago "Arrasatearrak zer egiten du" atala. Dena den, programa erakargarria da oso, gure inguruko enpresen gorabeherak segitzen dituzten gutzientzat.

Motzean

Ubane Madera



Plazentzian jaio zen orain 26 urte. "Hamaika Magazin" saioan osasunaz eta sexualitateaz arduratzen da. Ostegunetan Arrasate Pressen berri ematen du albistegietan.

- **Zergatik kazetari?**
- Nire izaerarekin bat datorrelako.
- **Lanbidez aldatzekotan?**
- Jendearekin harremanak izatea eskatzen duen bat edo euskararekin lotutakoa.
- **Eman duzun albisterik politena?**
- Orandik ez zait egokitu nik nahiko nukeen albisterik ematea.
- **Telebista saiorik gustukoena?**
- Albistegiak, bai telebistan bai eta irratan ere.
- **Gustuko janari bat?**
- Mailukiak.
- **Irakurri duzun libururik onena?**
- Mafalda.
- **Filmak koloretan ala zuri-beltzean?**
- Sakonagoak dira zuri-beltzean.
- **Karapaixoa ala ogi integrala?**
- Karapaixoa.
- **Oporretara nora?**
- Afrikara.
- **Zure dohain bat?**
- Bizipoza.
- **Amets bat?**
- Lasai bizitzea.

ATBn esanak



"Arrasatekoa kategoriako pilotalekua da. Frontoi garrantzitsua izan daiteke pilota profesionalaren barruan".

Ruben Beloki

Buruz-buruko txapelduna



"Velez de Mendizabal, Montiano eta nitaz gain, hortxe dabilta Jon Andueza eta Jon Iñaki Lasare. Bergaran, aldiz, Juan Martin Elexpuru baino ez dabil literatura lanetan. Beraz, Arrasaten ez gabilta hain txarto".

Diego Martiartu

Idazlea

ETXEBIZITZAK

3. Errentan emateko

• Etxea alokagai Unqueran (Kantabrian) asteburu, Aste Santu eta udarako. Tel.: 942 33 57 80.

• Etxebizitza alokagai Erdiko kalean. Tel.: 943 79 28 21. Denda orduetan.

• 3 gelatako etxea alokagai, Erdiko kalean. Tel.: 943 79 40 53.

• Etxebizitza alokagai San Andresen. 14:00 - 16:00 eta 21:00etatik aurrera. Tel.: 943 79 17 25.

• Gela bat alokatzen da ingeleseko eskolak emateko. Tel.: 943 79 54 33.

• Etxebizitza alokagai Zarautzen, ekaina, uztaila eta abuztuaren. Erdialdean dago, terraza eguzkitua eta garajearekin. Tel.: 943 13 03 42.

• Erdiko kalean etxebizitza alokatzen da ikasleentzat. Tel.: 943 79 12 20. Dora.

• 3 logelako etxebizitza alokagai, San Andresen. Tel.: 607 84 86 73. 21:00etatik aurrera.

4. Errentan hartzeko

• Gela bat alokatuko nuke. Tel.: 943 1990 62. Alazne. 21:00etatik aurrera.

• Ikasleak etxebizitza bila dabilta. Tel.: 616 55 03 18.

• Langileak etxebizitza bila Arrasaten. Tel.: 607 32 58 94. Maddi.

5. Etxeak osatzeko

• Bi lagun behar dira martxotik aurrera etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 16 54.

• Aretxabaletan etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. Tel.: egunez, 943 74 80 00. Iluntzean, 943 77 18 72. Amaia.

• Gela bat dugu alokagai etxebizitza batean. Tel.: 629 06 38 63 eta 606 87 26 82.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneo Biterin garajea salgai. Tel.: 943 79 46 88.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Eburne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 18 70.

• Ferrerías 42an 25 m²ko lokal komertziala salgai. Prezio berezia. Tel.: 943 78 12 32

14. Errentan emateko

• Taberna alokagai Arrasaten, Udape kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Gaixotasunagatik ezin dut atenditu. Tel.: 626 37 93 66.

LANA

17. Eskaintza

• Neska asteburuetan tabernari lanak

egiteko prest. Tel.: 943 79 42 54.

• Esperientziadun neska prest etxe-ko garbiketarak orduka egiteko, umeak zaintzeko edo beste lanen bat egiteko. Tel.: 943 79 69 66. Ainhoa.

• Medikuntzan lizentziatua gaixo nahiz pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 08 21.

• Enpresa zientzietan lizentziatua edozein lan egiteko prest. Tel.: 943 79 89 92.

• 16 urteko mutila, Mondragoeko tabernaren batean asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 943 77 01 83. Gaez deitu.

18. Eskaerak

• Aramaioko gastronomi elkarte baterako garbitzailea behar da. Tel.: 945 44 52 15.

• Emakume bat behar da jatetxe batean garbiketari lanak egiteko. Tel.: 943 79 24 58.

• Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Emakumea behar da bi neskatila zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Pertsona euskalduna behar dugu sagardotegi batean zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 53 85. Juanjo.

• Bi zerbitzari behar dira. Bat tabernarako eta bestea jangelarako. Komenigarria litzateke automobila edukitzea. Tel.: 943 76 50 99.

• Zerbitzari lanak egiteko pertsona bat behar da, hobe esperientzia badauka. Tel.: 943 77 17 97.

• Ile apaintzailea behar dugu. Tel.: 943 79 80 61. 21:00etatik aurrera.

• Sukaldaria behar da jatetxe baterako. Tel.: 943 71 51 23.

• Emakumea behar da etxe-ko lanak egin eta neskatila bat zaintzeko. Tel.: 943 79 29 19.

• Pertsona bat behar da Aramaion (Uribarri auzoan) Intxaurren Elkarteko garbiketarak egiteko. Interesatuok feitu 945 44 50 68 telefonora. Jabier edo Klaragatik galdetu.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partikularrak emango litzuzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

• Ingelesezko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

• DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

21. Eskaerak

• Gorren hizkuntza edo LS dakien norbait behar dut praktikatzeko. Tel.: 607 31 02 66. Sonia.

• DBHko 3. mailako ikasleak eskola partikularrak jasoko litzuzke. Tel.: 943 79 96 69.

• Alemanierazko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 20 15. Maite.

MOTORRA

23. Saldu

• Opel Astra GSi 2:0 autoa salgai. 115 zaldi, zuria. 1993koa. Tel.: 943 77 09 23. Roberto.

• Gasgas Trial motorra salgai, 250 cc-takoa. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• Motorra salgai. Suzuki GS-500 E,

karenatua eta faro bikoitza. 25.000 km., aseguru maiztzer arte, estrak, oso egoera onean. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

• Citroën Xsara 2000 vts 16 v, SS-BG salgai. Tel.: 943 79 64 48. Jon.

• Nissan Vanette Coah salgai. 76.200 Km. 200.000 pta. Tel.: 943 79 69 14.

• Seat Toledo Vs auto berria salgai. Gris metalizatua eta SS-7500-B4 matrikuladuna. Tel.: 943 76 54 19. Raul.

DENETARIK

26. Saldu

• Cocker txakurrak salgai. Tel.: 696 05 73 46.

• Soinu txikia salgai. Berria, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

• Solarium APRO markakoa salgai, egoera onean. Tel.: 943 76 51 76. Leire.

• Emakumezkoen mendiko bizikleta, berri-berria salgai. 3 plater eta 6 pinoi. BH markakoa. Tel.: 943 79

96 37.

• Bi mostradore eta apala metalikoak salgai. Tel.: 666 95 79 83.

• Bigarren eskuko teklatura, Yamaha Portatone (PSR-200) elektronikoa, salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 93 07.

• Ehiza txakurra salgai. Oso ona. Tel.: 943 79 73 65. Jabi.

• Karro denda berri-berria salgai, bi hilabetez erabilia. Bi ohe, egongelatxo. Tel.: 943 78 70 74.

27. Erosi

• Mundu guztiko txanponak erosi, saldu edo aldatuko nituzke. Tel.: 943 79 54 55. Mikel. 20:00etatik aurrera.

• Diskoak, singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77. Jose Luis.

• Diskoak eta LPak erosiiko nituzke. Tel.: 943 79 76 90.

• Bigarren eskuko ordenadore portatila erosi nahi dut. Tel.: 943 79 77 85.

31. Galdu

• Otolara kaleko farola baten ondoran tenazak galdu zitzaizkida; kirtanak gorri kolorekoak dira. Tel.: 943 46 53 56.

• Urre zuriko erraztun bitxiduna galdu zait. Balio sentimental handikoa da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez, eskertuko dugu. Tel.: 943 79 23 17.

• Puntuzko txaleko gris bat galdu dut Iturriotz kalean. Tel.: 649 88 79 22.

• Zorro beltz batean bilduta zeuden giltza batzuk galdu nituen, Zigarrola aldean pasa den astean. Aurkitu badituzu, deitu 943 79 07 80 telefonora.

• Inauteri domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Artxabaletan. Tel.: 945 44 52 00, 20:00etatik aurrera. Laneko Tel.: 943 71 92 00.

• Martxoaren 10ean koltxoidendako algozoizko 2 funda galdu nituen Tximeleta gozokidenda parean. Tel.: 943 79 80 25. Arantza.

33. Bestelakoak

• Dieta pertsonalizatua Nutrikare-

kin. Tel.: 619 32 62 27.

32. Aurkitu

• Urrezko katea dominarekin, Iñaki eta data jartzen duena. Udaltzaingoan dago jasota.

• Arrasate Pasealekuko "Bolintxo" okindegiaren inguruan, montura metalikoa eta koloreko kristalak dituzten betaurrekoak aurkitu nituen orain dela aste batzuk. Tel.: 943 79 47 56.


• Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Zaldia baduzu eta neurea zaintzeko aukera baduzu, tratu batera hel gaitzke. Tel.: 943 79 21 86. Jone.

• Garibai eta Biteri etorbideko bidegurutzean izandako istripu batean lekukoak behar dira. Istripua otsailaren 2an izan zen, Citroën Xsara gris batek eta Seat Ronda zuri batek elkar jo zuten. Norbaitek zerbait ikusi bazuen, deitu 943 81 13 26.



WERU
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



Kanpanzarko bidegurutzeak ezartzen zuen Mondragoerako hirigunerako sarrera mende hasieran; izan ere, Gasteizera edo Bilbora joateko bidegurutze honen aurretik, baserri auzoak bakarrik zeuden.

Kanpanzarretik pasatzen zen orduan errepide nagusia, Zarugalde zeharkatu eta gero; sasoi hartan ez zegoen artean San Andreserako errepiderik.

Kanpanzarko bidegurutze horretan zegoen "Damashoren

Taberna", gerora "Errartena" izango zena, ia Gerra Zibila amaitu arte. 1940tik aurrera Muxibar izena hartu zuen taberna horrek.

Bidegurutzearen bestaldean, berriz, Aramaio erreka zegoen; orain estalita dago. Santa Barbara parkera sartzeko pasabidea dagoen tokian aritzen ziren emakumeak arropa garbiketan, hantxe baitzegoen liziba.

Zarugalde kaleko jaietan, San Agustinetan, herriko gazteek Aramaio errekan bainatzeko ohitura zuten. Jendeak

txakur txikiak botatzen zizkien eta uretatik ateratzea zen jolasa (erderaz *kukaña* esaten zitzaion joko honi).

Zarugalde kaleari buruz gabiltzan honetan, guk aurreko astean bere esanahiari buruz adierazitakoaz gain, badago beste interpretaziorik ere, Josemari Velez de Mendizabal idazleak adierazi digunez. Berak idatzitako "Nire haurtzaroko Arrasate" liburuan, Zarugalde izena "lizar-ugalde"-tik datorrela adierazten du: "lizarrak diren urbazterra. Eta, batek

daki zenbat txistu egin genituen mutiko denboran, San Jose ikastetxe eta Aramaio erreka bitartean ziren lizarren adaxka gazteekin! Oraindik ere, Santa Barbarako magalean lizarrak ikus daitezke".

Argazkia: Ion Iñaki Yarza
Berriemaileak: Ion Iñaki Yarza, Jose Letonaren "Mondragón y sus calles" liburua eta Josemari Velez de Mendizabal.

**Zure hildakoen eskela,
 eskerrona edo urteurrena
 jarri nahi baduzu,
 oraintxe duzu aukera
 Arrasate Pressen eta ATBn.**

Argibideak ☎ 943 71 23 91



GRUPO

**Amuebladora
Mondragonesa**

a eme Interiores

Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

Sofa Leku

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE



10?

zergatik

Bikain bat merezi duzulako

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

bikainak

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR 